

BILBO: KULTURA-PLANETA



2018KO KULTURA PROGRAMAZIOA
WWW.BILBAOKULTURA.EUS

Bilbao

Azken urteetan, Hiriko kultura-jarduera era esponentzialean handitu da, bere argiarekin distira egiten duen unibertso bakan bat eratu arte. Eskuen artean duzun programazioa bilduma bat da; Bilbok zure esku jartzen dituen kultura-hitzordu eta baliabide nagusia, zehazki. Eta oraingoan, Udalaren eskaintzaz gain, pauso bat gehiago eman nahi izan dugu, beste erakunde publiko batzuek (Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) eta pribatuek sustatutako jarduera ugari barne hartuta. Izan ere, xedea da, batetik, denaren berri izatea erraztea eta, bestetik, gure kultura-kosmos zabal honetaz ezer ez galtzea.

Hartara, antzerki-, zinema-, musika- eta multimedia-jaialdien informazio nagusia bildu dugu, literatura-sariketa eta jardunaldiena, artearen arloko, dibulgazioko eta ondarea sustatzeko jarduerena, sorkuntzako ikastaro eta tailerrena, deialdi eta lehiaketena. Argitalpenak kultura eta aisia batu nahi ditu, eta bertakoen eta bisitatzen gaituztenen eskura jarri nahi du dena. Aurkezten ari gatzaizkizun kultura-planeta honetan, urteko egun guztietan dago jardueraren bat, abangoardiakoenak diren proposamenetatik hasi eta tradizionalenak diren ikuskizunetaraino.

Agenda bederatzi planeta handitan zatituta dago, eta bakoitzak bere gaia du:

**ARTE ESZENIKOAK; MUSEOAK; IKUSMEN-ARTEAK;
LETRAK ETA EZAGUTZA JENDARTERATZEA; IKUS-
ENTZUNEZKOA, MULTIMEDIA ETA TEKNOLOGIA
BERRIAK; MUSIKA; ONDAREA ETA IDENTITATEA;
JAIK ETA AISIA; ETA HURBILEKO KULTURA
BARRUTIETAN.**

Azken batean, gure hiriko kultura- eta aisia-eskaintza zabal eta askotarikoa laburbildu eta ordenatzen saiatzen diren bederatzi kapitulu dira. Eskaintza hori Udaletik abiatzen da, eta bai Bilbo kultura-unibertsoaz goatzeko hiria izan dadin egiten duten kultura-eragile publiko eta pribatuen sare aktibo eta ugaritik ere.

A man and a woman are sitting on a wooden bench in a dark space filled with stars. A large, bright red planet, resembling Mars, dominates the background. The woman, on the left, is wearing a pink dress and holding a black umbrella. The man, on the right, is wearing a yellow shirt and red pants, also holding a black umbrella. They are both looking towards the camera.

ARTE ESZENIKOAK: IZAR-EURI BAT IZANGO DA HIRIKO ANTZERKI PAISAIA

ARRIAGA ANTZOKIA

Urte osoan kalitateko programazio eszenikoak eskaintzeaz gain, erreferentziatzeko antzerki-ekoizpen eta ekoizpen lirikorako gunea da. Calixto Bieitoren laguntza gorena izanda zuzendaritza artistikoan, ikus-entzuleak harrituko dituzten ikuskizunak beteta ekingo dio udal titulartasuneko Arriaga Antzokiak 2018ari. Nabarmenezkoak dira bertako antzerki- eta lirika-ekoizpenak, izar handien bisita, nazioarteko lehen mailako dantza eta musika-programaren eklektizismoa. Eta konstelazioen bat-egite horretan gustu guztietarako aukera dago. Horrez gain, beste kultura-erakunde batzuekin gauzatzen duen elkarlanari eutsiko dio Arriagak, besteak beste, OLBErekin. Opera Txiki programa bultzatzen du elkarte horrekin, haurrentzat.

CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIA

La bombonera de Bertendona ere esaten zaio antzokiari, eta Bilboren bizitzako zati da 1902az geroztik. Berriki, norabide berri bati heldu dio, 2018 honetarako helburu argi hau izanik: Hiriak behar duen arte- eta kultura-aberastasuna handitzea. Alde horretatik, Campos Antzokiak toki garrantzitsua du gure kultura-programazioan, Estatuko agertokiaren arrakasta izaten ari diren antzezlanak eszenaratzen baitira bertan, nazioarteko talde onenak aritzen baitira, euskal artistentzako eta euskarazko antzerkirako tokia baitago bertan, eta, gainera, musika, dantza, antzerki musikala eta haurrentzako ikuskizunak egiten baitira. Azken batean, izarretako programazio bat da, adin eta gustu guztietako ikus-entzuleak gozaraziko dituen.

OPERA DENBORALDIA

**EUSKALDUNA JAUREGIA,
ARRIAGA ANTZOKIA**

Operaren Lagunen Bilboko Elkartea, OLBE, izar dirdiratsua da Euskadiko eta Estatuko kultura-paisaian, nazioartera hedatzen dena. Bilboko Opera Denboraldia aurkezten du, 45 emanaldi hartzen dituen programazio batekin eta betiere bikaintasunari eutsita. Hiru lan handik eratutako programa lirikoa hartuko du **Operaren 66. Denboraldiak**: Manon, Masseneten (urtarrilak 20-29), Salome, Straussena (otsailak 17-26), eta Norma, Bellinirena (maiatzak 19-28). Horri gehitu behar zaio gazteenen artean operarako interesa pizteko programa, ABAO Txiki, beste hiru ikuskizun hauekin: Un cuento de Navidad (urtarrilak 3-5), Pedro eta otsoa (martxoak 10-12) eta Allegro Vivace (maiatzak 26-28).

EUSKALDUNA JAUREGIA

Euskalduna Jauregia, Kongresu eta Musika Jauregia -Bizkaiko Foru Aldundia da titularra-, Bilboren erdian dagoen 58.200 metro koadroko planeta multifuntzional handi bat da. Bertan garatzen da OLBEren Opera Denboraldia, Estatuko eta Europa osoko garrantzitsu eta ospetsuenetako bat, eta egoitza du Bilbao Orkestra Sinfonikoak. Halaber, urte osoan, kongresuak ez ezik, antzerkiko, musikako eta erakusketetako programazio zabala ere hartzen du.

BBK ARETOA

On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusian kokatuta dago eta hiri-kulturari zabalkundea emateko gune ireki bat da. Bertatik, BBK-k (erakunde horrena baita) kultura sustatu eta bultzatzeko lan egiten du, kalitateko programazio askotariko baten bidez. Aretoan jaza, fadoa, flamenkoa, rock-and-rolla entzun daiteke eta euskal kultura bizi; trikitia eta txalaparta jotzen dira... Gure bertsolarien errima garrantzak ere goza daitezke. Antzerkia, poesia, zinema eta erakusketak ikus daitezke. Mendiaz, itsasoaz, lehorraz, unibertsoaz, magiaz, bizitzaz eta barreaz hitz egiten da, besteak beste. Zalantzarik gabe, kokaleku bakana da Bilboko kultura-esparruan, formatu-aukera ugari eskaintzen dituen eta denentzat zabalik dagoena.

PABILIOI 6

Eguzki-sistema propioa, arte eszenikoak, dantza eta antzerkia sortu eta sustatzeari lotuta dauden pertsonak biltzen dituen, sinergie bide emateko eta autogestio partekatua gauzatzeko. Hartara, sortzaileak berak dira beren lanen zabalkundea kudeatzen dutenak, publikoaren, ikus-entzuleen eta proiektuaren bazkideen laguntza bilatuta. 2018 honetarako, hauek nabarmendu behar dira: antzerki-programazioa asteburu guztietarako; Pabilioi 6ko Gazte Taldearen lan berriaren estreinaldiak urtarrilean eta musika-ikuskizun batekoak abuztuan; eta martxoan **Pabilioi 6ko Antzerki Laburreko VI. Jardunaldiak**. Hain zuzen, azken horretan, epaimahai batek hautatutako antzerki laburreko pieza originalak erakusten dira, ikus-entzule gutxirentzat eta ohikoak ez diren gunetan. Lan onenerako Alex Angulo saria eta euskarazko lan onenerako Kriseilu saria lortzeko aukera izan dezakete piezek.

ACT

ESZENA BERRITZAILEEN NAZIOARTEKO JAIALDIA

MAIATZAK 30– EKAINAK 2

*GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA,
KAFE ANTZOKIA*

ACT jaialdiak –BAI Bizkaiko Antzerki Ikastegiak antolatuta– hamabost urte egingo ditu goraka ari diren nazioarteko artistak sustatzen, beren proposamen berritzaileekin etorkizuneko antzerkigintza definitzen ari diren artistak. Arte biziak esperimintatzeko lau egun dira, ikuskizunetara, ikastaroetara, tailerretara edo jaialdiaren agertokietan gogoeta egiteko saioetara joanda. ACT meteoritoen, ideien, euria da, bertan sormena presente dago zirritu guztietan eta mundu osoko programatzaileak biltzen dira.

LA FUNDICIÓN

Aitzindaria izan zen 1980ko hamarkadan, eta 30 urte daramatza, tokiko, estatuko eta nazioarteko ikuspegi batetik, arte eszenikoen eta joera berrien arloan lan egiten. Sormenezko unibertso honetan, sortzaileek eta ikus-entzuleek bat egiten dute. Gainera, euskal taldeei eta artistei lagun egiten die sortzeko, hedatzeko, mugitzeko eta nazioartekotzeko beren prozesuetan, aukera profesional berriak eta merkatukoak sortu eta esploratzen. Hori guztia, programa hauen bidez: urteko denboraldia, antzerkiko, dantzako eta performanceko 50 talderekin, sorkuntzarako egoitzak, topaketak sortzaileekin, tailerrak, truke-proiektuak euskal taldeentzat, **Dantzaldia** jaialdia – nazioarteko dantza-jaialdia, udazkenean–, eta **Lekuz Leku** jaialdia –dantzako pieza laburren nazioarteko jaialdia, kalean egiten dena, ekainean.

BILBOKO KALEALDIA

NAZIOARTEKO KALEKO ANTZERKI ETA ARTEEN JAIALDIA

UZTAILAK 2 – 7

*CASILDA ITURRIZAR PARKEA, AREATZA,
ALDE ZAHARRA*

Arte eszenikoak agertokietatik kalera egingo du jauzi, publikoaren gozamenerako izarretako bidaia batean. Udalak sustatzen duen jaialdi honek kaleko arte eszenikoen arloan nabarmenenetako batzuen proposamen berritzaileak hartzen ditu, bertako taldeen azken lanekin, zirkuko, dantzako, clown-eko, kalejiretako eta abarretako emanaldiekin batera. Dudarik gabe, jardueren unibertso azkengabea, Hiriko kaleetan.

BILBAOESZENA

BALIABIDEEN ESZENIKOEN ZENTROA

Sorkuntza, prestakuntza eta ekoizpen eszenikorako udal zentroa da, eta bertan zerbitzu hauek ematen dira: aretoak lagatzea, materiala mailegatzea, laguntza ematea talde hasiberriei, eta haurrentzako eta gazteentzako antzerki-ikastaroak, hastapenetakoak helduentzat eta espezializatuak artistentzat antolatzea. Horrez gain, Antzerkiaren Nazioarteko Egunaren oroitzapena egiteko ekitaldiak (martxoak 27) bultzatzen ditu, nazioarteko adierazpena irakurrita eta ad hoc edo berriaz antolatutako ekitaldi bat, eta Dantzaren Nazioarteko Egunarena egitekoak (apirilak 29). Zalantzarik gabe, babesa emateko satelitea da, Hiriaren unibertso eszenikoan.

BILBAO ANTZERKI DANTZA (BAD)

BILBOKO ANTZERKI ETA DANTZA GARAIKIDEAREN JAIALDIA

URRIAK 18 - 27

*BILBOROCK, BILBAOARTE, REKALDE
ARETOA, LA FUNDICION ETA BESTE
GUNE BATZUK*

Telematikoki bidaiatuko dugu etorkizunera. Antzerkigintzako proposamen abangoardiakoenak eta berritzaileak egiten dira jaialdi honetan, Udalak antolatuta, antzerkiko eta dantzako nazioarteko, nazioko, eta tokiko ikuskizunak estreinatuta, Bilboko hainbat gunetan. Era berean, prestakuntza eta gogoeta eszenikorako elkargunea da, mahai-inguruak, hitzaldien eta tailerren bidez.

BILBO HAURRENTZAKO ANTZERKIA

Ikasturtean Zehar

BILBON ESKOLATIK ANTZERKIRA

Mitusu haur eta gazteentzako antzokiak eta Udalak antzerki- eta dantza-emanaldien kanpaina hau antolatzen dute Campos Antzokian, BilboRocken, Azkuna Zentroan, eta San Frantzisko eta Otxarkoagako udaltegietan, ikasturtean zehar eta ikastetxeetako ikasleentzat.

ESKOLAKO ANTZERKI LEHIAKETA

Arte eszenikoen harrobia bultzatzeko helburuarekin, Bilboko ikastetxeek sortutako antzerki-emanaldien lehiaketa sustatzen du Udalak. Hautatutako antzezlanek azken emanaldi bat egingo dute Arriaga Antzokian eta bertan banatuko dira sariak ekainaren 10ean. Izan ere, espaziorako bidaia honetan haurrak eta gazteak ere badira protagonistak.

PYRENART

Mugan zeharko lankidetzarako proiektu berria, hau ere Espainiako, Frantziako eta Andorrako Pirinioetako komunitateen artekoa. Arte eszeniko garaikideak bultzatzen dituzten bazkideek parte hartzen dute bertan, eta lehentasunezko helburua da Pirinioen bi aldeetako taldeen nazioartekotzea babestea. BAD jaialdia, Bilboko Udalak antolatutakoa, proiektu honetako bazkideetako bat da. Proiektua, hain zuzen, 3 urtean garatuko da, besteak beste, ekintza hauen bidez: berariazko prestakuntza azpiztituluak jartzean, mintegiak, hautatutako proiektuen mentoring-a, koprodukzioak, plataforma digital eleaniztun bat sortzea, eta abar.

ARTISTAK EGOITZAN

DEIALDIA OTSAILEAN, ETA EGOITZAK EKAINETIK URRIRA

Jaurtitze ororen atzera-kontua egin aurretik, baliabideak behar dira misioa urrun hel dadin. Sormenezko prozesuak babesteko beken programa honek –Bilbao Eszena antzerki-baliabideen zentroak sustatua, Euskadiko antzerki- eta dantza-arloko erakundeetarako eta artistentzat– baliabide ekonomikoak ematen ditu, instalazioak eta bitarteko teknikoak eskaintzen ditu, eta lagun-egite artistikoa egiten du, sormenezko proiektuak garatu ahal izateko.

KARRIKAN

Bilboko Udalak, Gasteizkoak, Iruñekoak, Hendaiakoak, Libournekoak, Euskal Herriko Hiriguneak-Hamekak eta Nafarroako Quiero Teatro antzerki-sustatzaileak eratutako plataforma da, eta xede nagusia kaleko arte eszenikoen sorkariak lagundu eta sustatzea Pirinioen bi aldeetan. Bazkide laguntzaile moduan, Arrigorriaga, Iurreta eta Zarauzko udalak aritzen dira, eta Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearekin hitzarmena du. Karrikan laguntzen hirugarren edizioan (udaberrian egingo da deialdia), taldeen eta artisten sorkari originalak lagunduko dira. Laguntza hori, zehazki, diru-laguntza ematea, sorkuntzarako egoitzak egitea, plataformako bazkide direnen jaialdietan programatzea eta administrazio-arloko aholkularitza ematea izango da.

DE MAR A MAR PIRINEOS DE CIRCO

Mugan zeharko proiektua da, Espainiako, Frantziako eta Andorrako Pirinioetako komunitateen artekoa. Bilboko Udala bazkidea da proiektu horretan, eta, zirkua garaikideko taldeei eta artistei sostengua emateko helburuarekin, hauek guztiak egiten dira: ikastaroak, laguntzen eta beken deialdiak, goraka doazen artisten babesletzak, lagun-egitea ikuskizunak zabaldu eta erakustean, eta ezagutza trukatzeko eta artista gazteei orientazioa emateko guneak. Proiektua nazioarteko dimentsio edo hedadura ardatz hartuta giltzatzen da, eta horrek bidea ematen die artistei beren herrialdearen mugetatik harago aurkitzeko aukerak. Xedea da zirkua-sormena planetako toki guztietara hedatzea.

HARROBIA

BILBO-OTXARKOAGAKO EKOIZPEN ESZENIKORAKO BERRIKUNTZA ZENTROA

Espaziora jaurtitzeko, aurretik lan asko egin behar da. Udal jabetzako zentro hau Eskenak kudeatzen du (Euskadiko ekoizpen eszenikoko enpresen elkarte), eta hauek guztiak eskaintzen dizkie arte eszenikoetako talde eta artistei: antzerkirako eta dantzarako entrenamendu-guneak, prestakuntza profesionala, antzerki- eta dantza-ikuskizunak ekoizti eta eraikitzea maila artistiko eta teknikoan, antzerki-ikerketako eta berrikuntzako proiektuak, eta egoitza artistikoak.



MUSEOAK: EZERK EZ DU EKLIPSATZEN BILBOKO MUSEOEN ESKAINTZA



BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Arte erromanikotik hasi eta lehen abangoardia eta haien adar garaikideetaraino, pinakoteka honek ibilbidea eskaintzen du XIII. mendearen eta XX.aren arteko mendebaldeko artista, estilo eta arte-eskola nagusietan. Izar-proportzioak dituen bilduma finkoaz gain, 2018 honetarako programazioan hauek nabarmendu behar dira: apirilaren 9a arte Eduardo Arroyo. Le retour des croisades erakusketa (BBK-k babestua); otsailaren 14a eta maiatzaren 28a artean, Goya y la corte ilustrada (La Caixak babestua); eta martxoaren 6a eta ekainaren 25a artean, Rembrandten Girl at a window margolan gonbidatua (Fundación Banco Santanderrek babestua).

BILBOKO BERREGINEN MUSEOA

Bilboren erdiguneko eliza zahar batean kokatuta, antzinako eskultura ospetsuenetako batzuen erreprodukzioak hartzen ditu. Urteko programazioa kultura zabaltzera bideratzen du Museoak, heziketaren orbitatik, bai aldi baterako erakusketen bidez –erakundeko funtsak abiapuntu hartuta sortuak–, bai jarduera desberdinen bidez –urte osoan programatuak eta adin eta gustu guztietako hartzaileri zuzenduak–. Haien artean, hauek nabarmentzen dira: Lana bere testuinguruan hileroko hitzaldien zikloa, Swing Museoan dantzarekin izaten den hileroko hitzordua, Manuel Balsa “El Ruso” kanpoko akuarela lehiaketa (ekaineko lehen asteburuan), haurrentzako tailerrak Eguberrietan urteko azken astean, Ondarearen Europako Jardunaldiak, Museoen Nazioarteko Eguna, Liburuaren Eguna, San Balendin eta San Tomas.

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

Alde Zaharraren bihotzean, XVII. mendeko eraikin batean dago; Jesusen Lagundiaren San Andres ikastetxea eta eliza izan zen eraikin batean, hain zuzen. Gure ohituretako, tradizioetako eta geure kosmoseko objektuak eta lekukotzak hartzen ditu. Erakusketa iraunkorraz gain, Euskal Museoak aldi baterako erakusketak ditu, hitzaldiak, zinema-zikloa, ondorengo forumarekin, haurrentzako tailerrak Eguberrietan, urteko azken astean, Ondarearen Europako Jardunaldiak, Museoen Nazioarteko Eguna, Liburuaren Eguna, Santa Agata, San Tomas. . . , eta Basque FEST eta Gau Zuria jaialdiak eta Bilboko Erraldoi eta Buruhandiak hartzen ditu udako hilabeteetan.



BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

Iparrizarra itsasargia izan da gaueko zeruan marinelentzat historian zehar. Izar horri jarraituta, Itsas Museora iritsiko gara, Euskaldunaren garai bateko ontziolen dikeen inguruan kokatuta, Bilboko itsasadarrean. Bertan, Bilboko itsasoaren eta portuaren memoria eta ondarea jasotzen da. Barnean, itsasadarren eta portuaren bilakaera fisikoa ikusten da historian zehar, eta bere garapenaren agertoki eta motor izan diren jarduerak eta eginkizunak, hala nola itsas merkataritza eta itsasontzigintza. Apirila bitarteko programazioan, The last voyage aldi baterako erakusketa nabarmendu behar da. Andrés Gangoiti Eretza Mendiko marinelaren bizitzari buruzkoa da. 36ko gerran atxilotu eta heriotzara kondenatu zuten. Eta apiriletik aurrera, Bilboko Portuaren interpretazio zentro bat hartuko du, Port Center, Bilboko Portuak egun gizartean, ingurumenean eta ekonomian duen garrantzia ezagutarazteko, Bilboren eta Bizkaia-aren garapenean.

ELEIZ MUSEOA

Bilboko museoaren ortziaren barnean, erlijio-arteak ere bere gunea du. XVI. mendeko komentu batean kokatuta, Atxuri auzoan, Eleiz Museoak Bizkaiko piezen bilduma zabal bat du, kronologikoki banatuta, erlijio-arte horren bilakaera ikusteko aukera ematen dutenak, erromanikotik hasi eta arte garaikideraino iritsita. Zilargintzako bilduma interesgarri bat ere hartzen du. Bertako programazioan, abenduaren 1a eta 20a artean, eskuz egindako Eguberrietako gozoen salmenta eta erakusketa bat nabarmendu behar dira, klausurako mojek egindakoak. Halaber, abenduaren 1a eta hurrengo urteko urtarrilaren 5a bitartean, eskuz egindako jaiotzen erakusketa bisitatzeak aukera izango da. Bost kontinenteetakoak izango dira, bakoitzak bere lurraldeko kultura ordezkatzuz.

PASOEN MUSEOA

Bilbo Hiriko Penitential Kofradien Anaidiak jarri zuen abian Pasoen Museoa, "La Burrería" eraikin zaharrean (Udalarena da eraikina), Iturribide kale ezagunean. Xedea, hain zuzen ere, gure Hiriko Aste Santuko historiari zabalkundea ematea da, eta duen arte- eta erlijio-ondarea ezagutaraztea. Horrez gain, Eguberrietan, jaiotzen erakusketak egiten dira, eta haietara bisitari ugari joan ohi dira, Gabonen izarrak erakarrita.

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

Bilboko kultura-galaxian distira gehien egiten duen izarretako bat da. Frank Gehry arkitektoak sortuta, ekipamendua XX. mendeko arkitektura abangoardiakoenaren adibide bikaina da. Museoa eraikitzeak Bilboko itsasadarra lehengoratzea ekarri zuen hirirako, eta berriro urbanizatzea, kulturarako eta aisiarako. 1997an zabaldu zenetik, Museoaren bildumak XX. mendeko ikusmen-artearen ikuspegi oso bat eskaintzen du. Gainera, Guggenheim Museoak aldi baterako bi erakusketa handi antolatu ditu 2018rako: Artea eta Txina 1989 ondoren: Munduko antzerkia, maiatzaren 11 eta irailaren 23a artean; eta Alberto Giacometti: atzera begirakoa, urriaren 19a eta otsailaren 24a artean. Halaber, egungo artearen oinarri buruzko erakusketak izango dira Museoan, Henri Michaux: beste alde (otsailak 2 – maiatzak 13), Chagall. Urte erabakigarriak (ekainak 1 – irailak 3) eta Thannhauser bilduma (irailaren 21etik aurrera); garaikidetasun-zatiei buruzkoak, Esther Ferrer (martxoak 16 – ekainak 10), Joana Vasconcelos: I'm your mirror (ekainak 27 – azaroak 11) eta Architecture effects (azaroaren 30etik aurrera); eta zinema- eta bideo-instalazioak, Michael Snow: zirkuitu itxia (martxoak 23 – uztailak 1), Diana Thater: mundu bat ihesean (uztailak 12 – urriak 21) eta Javier Téllez: itzal-antzerkia (urriaren 31tik aurrera).

BIZKAIKO ARKEOLOGI MUSEOA

Museo hau Foru Aldundiak sustatzen du, eta Bizkaiko arkeologia-ikerketen erreferentziatzko zentroa eta zabalkundea egiteko kanala da, hauetara bideratuta dauden jardueren bidez: lurraldearen historiaren ezagutza zabaltzea, arkeologia ikasketak bultzatzea, eta arkeologia-materialen gordailua, kontserbazioa eta zaharberritzea bermatzea. Bertako erakusketa iraunkorrak gure lurraldean giza bizitzak izan zituen hastapenetatik, duela 100.000 urte baino gehiago, garai historikoetaraino eramaten gaitu. Planeten arteko bidaia da, Alde Zaharren bihotzean dagoen behatoki honetatik egiten dena.



IKUSMEN-ARTEAK: ARTE HAUEN UNIBERTSO AMAIGABEA, TRADIZIONALENETATIK EGUNGOENETARAINO

BILBAOARTE FUNDAZIOA

Ekoizpen artistikorako udal zentroa da, estudioak, grabatu- eta serigrafia-tailerrak, irudi digitalekoak, eskulturakoak, zeramikakoak, argazkigintzakoak, filmatzeko platoa, media lab-a, dokumentazio-gunea, ikus-entzunezkoak proiektatzeko aretoa eta lanerako hainbat gune eskaintzen dituena. Dударik gabe, erabateko erreferentea da ikusmen-artearen kosmosaren barnean.

Bere helburuak lortzeko, BilbaoArte Fundazioak, besteak beste, jarduera hauek bultzatzen ditu:

- Ikastaroak, mintegiak eta hitzaldiak: prestakuntzarako proposamenak dira, serigrafiatik ikus-entzunezkoen sorkuntzara doazenak, teknika berrietatik igarota, hala nola bideo-mapping-a, ehun adimendunak, droneen sorkuntza eta kontrola, 3Dko teknologiaren eta laser bidezko ebakitzeko erabilera.
- Artista gazte garaikideen erakusketak: BilbaoArte Fundazioak urtero zazpi erakusketa banakako eta taldekako bat ekoizten ditu, eta horrez gain hamar bat erakusketa antolatzen ditu Fundazioaren gunetan.
- Artisten trukeak, beste zentro artistiko batzuekin.
- Aholkularitza artistikoa, erakunde-proiektuak garatzeko.

Halaber, BBKrekin elkarlanean, BilbaoArte Fundazioak, urtero, urria eta azaroa artean, deialdia egiten du beken bere programan parte hartzeko. 2.000 eta 5.500 euro arteko laguntzak izaten dira, estudioak lagatzea eta alojamendua ematea.

AMPHYTRION

EGOITZA ARTISTIKOEN PROGRAMA

Kultura- eta espazio-bidaia honetan, sormenak eginkizun gorena du. Hartara, Azkuna Zentroak sustatutako egoitzen programa honek sorkuntza laguntzeko zenbait ekimen biltzen ditu. Zentroko programazio osoarekin koherentea den programa bat da, eskaintza handitzeko helburua duena kanpoko laguntzekin. 2018ko deialdiak egoitzetarako bi ildo jasotzen ditu: ikusmen-arteak eta arte eszenikoak. Gainera, Azkuna Zentroak Consonni gonbidatu du, 2018an eta 2019an egoitza egiteko taldea izateko.

BILBAO ART&FASHION BIAAF

Modako diseinuaren gaineko lehiaketa, 18 eta 35 urte artean izanik, goraka doazen mundu osoko diseinatzaileentzat antolatzen dena. Talentu gaztea, 60 herrialdetatik baino gehiagotatik iristen dena eta modako diseinuko nazioarteko eskola onenetakoa. Lehiaketan aurkeztutako lan guztiek artean hartu behar dute ideia edo zuzenean harekin lotuta egon behar dute (estanpatuak, formak, xehetasunak...). Diseinatzaile bakoitzak artearen arloari heltzeko dituen ikuspegi desberdinak erakusteak dakarren kulturarteko aberastea lortu nahi da. Izan ere, modaren galaxiako txokoetako bakoitza ezagutu behar baita.

- Lanak aurkezteko epea: otsaila.
- Abisu ematea hautatutakoei bigarren faserako: martxoa.
- Lan finalistak jasotzeko epea amaitzea eta epaimahaiak erabakiak hartzea: martxoa.
- Sariak banatzeko ekitaldia: ekaina.

AZKUNA ZENTROKO ERAKUSKETAK

Astronauta ororen ontziko liburuan agertu behar du Azkuna Zentroko erakusketetarako bisita batek: urtean zehar programatutako erakusketak dira, zinemari, teknologiari, pentsaerari, diseinuari, aktibismoari eta abarri buruz. Barne hartzen dituzte jarduera osagarriak, esate baterako, bisita gidatuak eta pedagogia-ekintzak. 2018 honetan, erakusketa hauek egingo dira: Itziar Barrio (otsaila-maiatza), Prototipoak (maiata-iraila) eta Ángela de la Cruz (2017ko urria -2019ko urtarrila).



TECHNOSHOP

APIRILA

Bilbao Ekintza udal sozietateak babestutako programa da, eta Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Mekanikoko Graduko eta Industria Diseinuko Ingeniaritzako Graduko ikasleek garatzen dute Bilboko saltokietako erakusleihoetan. Programa horretan lan egiten dute urritik apirilera, eta, gero, emaitza azken hilabete horretako bigarren hamabostaldian eramaten dute saltokietara. Hartara, ekintza horrek ikuspena eta sustapena ematen die prestakuntza-ikastetxe horiei eta parte hartzen duten saltokiei. Dударik gabe, beren mundua ikuspegi desberdin batetik erakusteko leihon onena da.

BILBAO ART DISTRICT

ARTEEN ASTEA

MAIATZEKO 3. EDO 4. ASTEAN

Ekimen honetan elkarrekin parte hartzen dute eta aritzen dira Bilboko Udala, Bizkaiko Foru Aldundia eta Hiriko ikusmen-arteetako gainerako eragileak: museoak, galeriak, ekoizpen-guneak eta abar. Hain zuzen, aste horretako programazioan, erakusketak, topaketak artistekin, bisita gidatuak, tailerrak, arte-interbentzioak hiri-eremuan eta performanceak izaten dira.

PROTOTIPOAK

FORMA ARTISTIKO BERRIEN NAZIOARTEKO II. TOPAKETA

MAIATZA – EKAINA

AZKUNA ZENTROA

Forma artistiko berrien bienala. Nazioarteko topaketa honetan, tokiko, nazioko eta nazioarteko artisten proiektu batzuk proposatzen dira, hirian ekoitziko direnak, tokiko eragile desberdinekin lankidetzan arituta, eta bai erakusketa bat ere, robotika sozialaren gainekoa.

ARTESHOP

EKAINEKO 1. HAMABOSTALDIAN

BilbaoArte Fundazioarekin, EHUKo Arte Ederren Fakultatearekin eta Bilbao Ekintza udal sozietatearekin elkarlanean arituta, programa honek merkataritza- eta arte-jardueraren arteko sinergia baliatzen du, saltokien sormenezko gaitasuna sustatzeko, arte-adierazpiderako ezohiko gune bat sortzeko eta erosteko esperientzia aberasteko. Eguzki argizagiarekin bezala, ekimen honekin, parte hartzen duten saltoki guztiak argituko dira. Izan ere, Arte Ederretako Fakultateko ikasleek ex profeso edo berariaz egindako esku-hartzeak erakutsiko dituzte Bilboko merkataritza-saltokiek. Era berean, BilbaoArte Fundazioko 10 artistak EHUKo ikasleen sormenezko prozesua koordinatzen dute eta beren esku-hartzeak egiten dituzte Bilboko leku enblematikoetan, hala nola Erribera Merkaturan eta Turismo Bulegoan.

KULTURA TAILERRAK

URRIA – MAIATZA

Eskulangintzako, arte aplikatueta, arte plastikoetako eta ikusmen-arteetako tailerrak eta gela irekiak, euskaraz eta gaztelaniaz, Udalak bultzatuta barruti hauetako udaltegietan: Deustu, Arangoiti, San Ignazio-Ibarrekolanda, Castaños, Zurbaranbarri, Otxarkoaga, Begoña, Santutxu, Ibaiondo-Alde Zaharra, San Frantzisko, Zabala, Buia, Abando-Barrainkua, Rekalde, Irala, Uretamendi, Basurtu, Zorrotza, Olabeaga, Altamira eta Masustegi.

SELECTED EUROPE

DISEINUAREN ETA SORMENAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

AZAROAN

Egiten den bitartean, jaialdi honek azken joeren berri izateko eta haiek partekatze gune bat eskaintzen die diseinu grafikoaren eta ikusmen-artearen profesionali eta talentu berriei. Zehazki, jardueren programa askotarikoa izaten da, nazioarteko eta tokiko diseinatzaileen, sortzaileen eta zeharkako diziplinetako artisten presentziak aberastuta, txostenetan, mahai-inguruetan eta bertaratzen den publikoaren interesekoak diren jarduera desberdinetan parte hartzen baitute. Artista grafiko orok ezagutu beharreko sortze-unibertsitatea da.

FIG BILBAO

NAZIOARTEKO GRABATU JAIALDIA

AZAROAN

Paperaren gaineko arteari eta lan grafikoari buruzko Europako erreferentzia garrantzitsuenetako bat da FIG Bilbao. Nazioarteko proiektu honek merkataritzako, museoetako eta ikerketako eskaintza konbinatzen du. Alde horretatik, arte-galeriei, editoreei eta lantegiei eskainitako guneak beste pabiloi batzuekin konbinatzen dira, non museoetatik eta kultura-erakundeetatik datozen paper gaineko lanak erakusten diren. Programazioa osatze aldera, tailerrak, hitzaldiak, zuzeneko erakustaldiak... egiten dira eta bai ezin konta ahala jarduera ere, beren unibertsitatearen ardatz papera dutenak.

REKALDE ARETOA

Gune hau Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du, eta arte-jardunbide garaikide desberdinak ezagutu, jaso eta jendarteratzean sakontzeko xedea du. Bere ibilbidea ekoizpen garaikidearen ikerketari lotuta dago gure mugei barnean eta haieiari kanpo, egun artea lantzen duten eztabaidak zabaltzeko gai diren lan-proposamenen bidez. Egiturari dagokionez, erdiguneko bi gunetan zatituta dago, eta zenbait abiaduratan ibili nahi du, lanerako formatu desberdinetan sakonduta, erakusketatik lanak aurkezteko proiektu zehatzetara, eztabaidatzeko saioetara, bideo-emanaldietara, hitzaldietara edo argitalpenetara.



LETRAK ETA EZAGUTZA JENDARTERATZEA: LITERATUR- ETA ZIENTZIA -UNIBERTSOA ESPLORATZEN

BILBOKO UDAL LIBURUTEGIEN SAREA

Planeta bat balitz bezala, Udal Liburutegien Sareak 16 satellite dauzka, hiritar guztiei zerbitzua emateko: liburutegi nagusi bat Bidebarrietan; barrutiko bi liburutegi Deustun eta Begoñan; auzoko hamaika liburutegi San Ignazio, Zurbaran, Castaños, Otxarkoaga, Ibaialde, San Frantzisko, Zabala, San Adrian, Irala, Rekalde eta Zorrotzan; BilbaoMusika liburutegi espezializatua; eta Buiako zerbitzu-gunea. Denen artean, euskarri desberdinetan (liburuak, aldizkariak, filmak, partituras eta CDak) 450.000 aleak gainditzen dituen bilduma bat jartzen dute hiritarren esku, adin guztietarako dena eta etengabe eguneratuta dagoena. Liburutegietan egin daitezke kontsultak, edo mailegatu egin daiteke behar dena, etxera eramateko. Bilduma horren zati bat garai bateko funts batek eta bertako funts batek eratzen dute, progresiboki digitalizatzen eta BLD Bilboko Liburutegi Digitalean sartzen ari dena.

Eta interkonektatuta dagoen unibertso baten moduan, Sareak, gainera, ordenagailuen zerbitzua eta wifi konexioa eskaintzen du, erabiltzaileei Internetarako sarbidea errazteko, eta bai jardueren programa oso bat ere. Programa horrek barne hartzen ditu 300 proposamen baino gehiago, bai helduentzat (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez irakurtzeko tailerrak, hitzaldiak, topaketak idazleekin, bibliografia-erakusketak eta bisita gidatuak) eta bai gazte eta haurrentzat ere (ipuin-kontalariak, literatura-, magia-, komiki-tailerrak...).


AZKUNA ZENTROKO MEDIATEKA BBK

Informaziorako zentroa da, komunikaziorako eta kultura-trukerako toki, aisiarako, irakurketa sustatzeko edo ikasi eta ikertzeko gune askotarikoa. Izan ere, beti gelditzen dira aurkitzeko espazioak. Azkuna Zentroko Mediateka BBK-k hiritar ororen esku jartzen du libreki eskuratzeko funts bat, multidisziplinarioa eta egungoa, eta literatura jendarteratzeko jarduerak egiten ditu urte osoan.

BIDEBARRIETA KULTURGUNEA

Gune honetan, literaturako, zientziako eta dibulgazioko izen handiak elkartzen dira, beren ideiak eta gogoetak azaldu eta partekatzeko. Bidebarrieta Kulturguneko ekitaldi-aretoa Hiriko literatura- eta ezagutza-unibertsorearen elkargunerako toki da, eta programazio askotarikoa izaten du:

- **Eztabaidak Literaturarekin:** Ospe handiko idazleekin hilero egiten diren literatura-topaketak dira, intereseko gai baten gainean. Moderatzaile edo aurkezle kualifikatu bat aritzen da haietan.
- **Erakunde Egunak:** Hiria gehien ordezkatzuten duten egileei egindako aitortza da, Blas de Otero (martxoak 15), Miguel de Unamuno (irailak 29), Gabriel Aresti (urriak 14) eta Ángela Figuera (urriak 30).
- **XXI. mendeko idazle emakumeak:** Bi hilean behin egiten diren topaketak dira; egungo literaturan protagonista diren emakumeekin, zehazki.
- **Darwinen Eguna:** Charles Darwin eboluzioaren teoriaren sortzailearen jaiotzaren urteurrena (1809ko otsailaren 12a) ospatzea. Zientziaren hainbat arlotako nazioarteko pertsonaiekin egingo diren hitzaldiak eta eztabaidak izango dira.
- **Poesiaren Mundu Eguna:** martxoaren 21ean.
- **Matematikak eguneroko bizitzan:** Jardunaldi hauetan, asmoa da matematika herritar orori gerturatzea, apirileko ostegunetan.
- **Kultura eta pentsamenduari buruzko zikloa:** Gaurkotasuneko gai bati buruzko hitzaldiak, maiatzeko astelehenetan.
- **Liburutegien Eguna:** urriaren 24an, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatzea.
- **Symposiuma** Bilboko historiari buruz, Eusko Ikaskuntzarekin elkarlanean, azaroan.
- **Emakumeek zientzia egiten dute:** Programa honetan balioa ematen zaio emakumeek zientziari egiten dioten ekarpenari. Azaroko ostegunetan izango da.
- **Euskararen Eguna:** Abenduaren 3an Euskararen Eguna ospatzea.
- **Bidebarrieta musikala:** Musika-emanaldiak eskaintako atal berezia.
- **Liburuaren aurkezpenak,** topaketak idazleekin, errezitaldi lirikoak eta abar.



BIZKAIKO FORU LIBURUTEGIA

Bizkaiko astronomia-behatoki handia da, eta bertan bibliografia- eta dokumentu-funts handi bat aurki dezakegu. Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen du, eta Hiriko Zabalgunean bertan kokatuta dagoen liburutegi hau Bilboko eta Bizkaiko kultura-errealitatera egokituta dago, XXI. mendeko gizarteak planteatzen dituen erronka berriei erantzuteko bidea ematen duten zerbitzu berriei. Hemeroteka du, dokumentazio-aretoa, inkunabeak eta eskuizkribuak dituen erreserba-funtsa . . . , eta, eskaintza zabaltzeko, literatura-topaketak, kultura-jarduerak eta erakusketak antolatzen ditu.

LITERATURA LEHIAKETAK

Literaturaren planetari distira emango dioten talentu berrien etengabeko bilaketan, Udalak zenbait lehiaketa antolatzen ditu, Hirian izan diren idazle nagusietako batzuen izena dutenak:

- **Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa.** Deialdia: urtarrilaren 15ean. Jatorrizko lanak jasotzeko epea amaitzea: martxoaren 30ean.
- **Miguel de Unamuno Saiakera Saria.** Deialdia: otsailaren 15ean. Jatorrizko lanak jasotzeko epea amaitzea: apirilaren 30ean.
- **Blas de Otero Bilbo Uria Poesia Saria.** Deialdia: martxoaren 15ean. Jatorrizko lanak jasotzeko epea amaitzea: maiatzaren 30ean.

RAFAEL MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA

URTARRILAREN 31 arte

Udalak antolatzen duen sariketa hau Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat da, eta euskaraz idaztea eta irakurtzea bultzatzea du xede. Ipuinek argitaragabeak izan behar dute, eta marrazkiek lagunduta egon behar dute. Lau kategoria daude, ikasketa-mailen arabera, eta hiru sari banatzen dira haietako bakoitzean. Esaten dute neska-mutikoak beren unibertsoan bizi direla, eta horregatik nahi dugu hura erakustea, euskarazko literatura-sorkarien bidez.

LIBURU AZOKAK

Liburuen zaleak beti daude literaturaren ortziaren barnean lan berriak esploratzeko prest. Egiteko hori errazte aldera, Udalak, Euskadiko Liburu Ganberarekin lankidetzan, urteroko hitzordu hauek bultzatzen ditu:

- **Liburuaren Nazioarteko Eguna:** apirilaren 23an, Berastegi kalean.
- **Liburu Berrien Azoka:** ekainaren 1a eta 10a artean, Areatzan.
- **Antzinako eta Bigarren Eskuko Liburuaren Azoka:** urriaren 26a eta azaroaren 11 artean, Areatzan.

BILBAOPOESIA

POESIAREN ASTEA MARTXOAREN ERDIALDERA

BIDEBARRIETAKO LIBURUTEGIA

“Gure artekoa hain iheskorra izan zen, ezen izar batek gu ikusi eta desira bat eskatu baitzuen” (Mario Benedetti). Poesiaren Astea jaialdi poetiko bat da, Udalak antolatua eta genero honetan nazioartean ospetsuak diren olerkariak biltzen dituen. Bertan, errezitaldiak eta irakurketak dira protagonistak, idazleekin egiten diren topaketekin, hitzaldiekin, kontzertuekin, liburuaren aurkezpenekin eta abarrekin batera. Ezin saihestuzko hitzordua da poesia unibertsoaren jarraitzaileentzat.

GUTUN ZURIA

BILBOKO LETREN XI. NAZIOARTEKO JAIALDIA APIRILEAN

Azkuna Zentroak Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdiaren hamaikagarren edizioa egingo du, eta gaiaren ardatza naturara itzultzea izango da. Jaialdi hau erabateko erreferente bihurtu da literaturaren barnean, hizketaldien formatu hurbil eta solasaldirako ireki bati esker. Izan ere, letrek beti dute tokia Hiriko kultura-programazioaren barnean.

ZIENTZIA AZOKA

APIRILAK 21

PLAZA BARRIA

Elhuyar Zientziak sustatutako jarduera da, Udalarekin elkarlanean, eta bertan 12 eta 18 urte arteko gazteek zientziako edo teknologiko proiektu bat egiten dute, ikasturtean egiten duten izarretako bidaia batean. Proiektu horretan, gazteen taldeek erabakitzen duten gaiaren gainean lan egingo dute, galderak planteatzen, ikertzen, diseinatzen, eraikitzen eta esperientzia berriak bizitzen. Eta lan horren saria apirilaren 21ean iritsiko da, parte-hartzaileen proiektuak argitara atera eta publikoari aurkezten zaizkionean. Egun horretan, dagozkien diplomak emango dira, Elhuyarrek helburu horretarako prestatutako txokoan esperimentuak egiten ikasiko dute ikasleek eta, azkenik, irabazleek beren sariak jasoko dituzte.



KLASIKOEN IRAKURKETA JARRAITUA

EKAINEAN

ARRIAGA ANTZOKIA, EUSKALTZAINDIA

Urtean behin, ospe handiko idazle baten barne unibertsoa esploratzen dugu. Hartara, bere lan baten irakurketa jarraitua egiten da Arriaga Antzokian, goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko zortziak bitartean. Horrez gain, egile horri buruzko hizketaldiak izaten dira Euskaltzaindiaren egoitzan. Bilboko Udalak antolatzen du, Bilbo Zaharra Forumei elkarlanean (Bilbo Zaharra Euskaltegia).

JA! BILBAO

UMOREZKO LITERATURAREN ETA ARTEAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

IRAILAK 27 – URRIAK 7

BBK ARETOA ETA BESTE GUNE BATZUK

Umorea galaxiako txoko guztietan dago. Eta jaialdi honetan, arteetan aurkituko dugu, oro har, eta literaturan, bereziki. Ja! Bilbao jaialdiak jarduera-programa askotarikoa aurkezten du, eta bertan tokia dute gogoetak eta bai dibertsioak ere. Horretarako, elkarriketak eta mahai-inguruak egiten dira hainbat gairi buruz, elkarriketak egiten zaizkie une bakoitzeko egile interesgarrien eta nabarmenenei, emanaldiak, lehiaketak eta erakusketak. BBK Ja! Bilbao Sariaren bidez, ekitaldi honek omenaldia egiten dio urtero nazioarteko pertsona ospetsu baten ibilbideari, bere lanean umoreak protagonismo gorena izan duelako.

ARGITALPENAK

Lan handiek argitara atera behar dute. Hartara, 2018 honetan, Udalak antolatutako sariketa hauetan irabazle izan diren lanak kaleratuko dira: Blas de Otero Bilbo Uria Poesia Saria, 2017ko edizioa, euskaraz eta gaztelaniaz; Miguel de Unamuno Saiakera Saria, 2017ko edizioa, euskaraz eta gaztelaniaz.

IKUS-ENTZUNEZKOA, MULTIMEDIA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK: EZIN KONTA AHALA PROIEKZIO BILBOKO ORTZIAN



BILBAO BIZKAIA FILM COMMISSION

Bilbo unibertsoaren erdigunea dela esaten badute, ba al da filmaketa baterako agertoki hoberik? Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin gauzatzen duten ekimen honen helburua da hirira eta lurraldera zinemako, telebistako, publizitateko eta abarretako filmatzeak erakartzea, aberastasuna sortzeko eta ikus-entzunezkoen arloa gure ingurunean sendotzeko era dela aintzat harturik.

ART HOUSE ZINEMA

Genero guztiak zinema-planetaren inguruan orbitatzen. Urtean zehar, BilbaoArte Fundazioak zinema-zikloak eta dokumentalenak antolatzen ditu bere egoitzan, libreki eta doan sartzeko. Ohikoak dituen ziklo desberdinen artean, hilero Azken Asteazkeneko Hitzordua egiten du Frantziako zinema zikloarekin, Institut Françaisekin lankidetzan. Era berean, Koreako zinemaren ziklo bat egiten du, Koreako Kultura Zentroarekin batera antolatuta, eta arte- eta zinema-jardunaldiak, Portugalak Madril duen Enbaxadarekin elkarlanean sustatuta.

BIDEOTIK

IKUS-ENTZUNEZKO BESTELAKO NARRATIBEI BEGIRA JARRITA

AZKUNA ZENTROA

Bideo-sorkuntzako urteroko zikloa, ikus-entzunezko narratibak adierazpide gisa lantzearen gainean jarduten dena. Helburua da bideo-sorkuntzako lanak eta proiektuak ikusgai egitea, tokiko, nazioko eta nazioarteko testuinguruan sortuak, artearen, sorkuntzaren eta kulturaren profesionalek egindakoak.

AZKUNA ZENTROKO ZINEMATEKA

Urteko programazio egonkor eta jarraitua du, egile-zinemari eta zinema garaikideari eskainita. 2018 honetako programan, hauek nabarmendu behar dira: Charles Chaplin zikloa, komiko bikainaren unibertso partikularrean sartzeko (martxoa arte), eta Gorputz lekualdatuak zikloa, dantzaren eta performancearen artean mugimenduan diren gorputzen atzera begirakoa (urtarrila – martxoa).

CINECLUB FAS

EL CARMEN ARETOA

Cineclub FAS irabazteko asmorik gabeko elkarte bat da, Bilboko zinematografia-eskaintza osatzeko asmoa duena, hiru alderdi hauetan: jatorrizko bertsoian dauden eta gaztelaniazko azpitituluak dituzten filmak ematea, oraindik ere hirian estreinatu ez direnak; klasiko handiak berriro ematea; eta filmak ematea zuzendaria edo zinemaren arloko beste pertsona ospetsu batzuk bertan direla. Emanaldiak, eskuarki, astearteetan izaten dira, 19:45ean, Indautxu plazako El Carmen aretoan, ikasturtean zehar, eta amaitzeko hizketaldia egiten dute, filmen hainbat alderdi tekniko eta tematiko aztertzeko. Gainera, dokumentazio-gunea du eta zinematografia-arloko aholkularitza emateko zerbitzua, bai erakundeetarako, bai eta zinemaren gaineko interesa duten pertsonentzat ere.



ZINECITTÀ

OTSAILAK 15 -17

BBK ARETOA

Egun horietan, Bizkaiko hiriburua xirmi-xarma Italiako zinemako fabbrica dei sogni bihurtzen da: antzokiko aurreargiak pizten dira Zinecittà Italiako zinema garaikideari buruzko zikloaren hirugarren edizioaren gainean.

Ekimen aitzindaria da bere generoan, Euskaditalia, spazio di unione culturale elkarteak sustatua, Bilboko Udalarekin, Zinebirekin, BBK Aretoarekin eta Istituto Luce de Roma izenekoarekin elkarlanean. Asmoa da Alpeez haraindiko egungo zinematografiari buruzko argi-izpi fresko eta berritzailea eskaintzea.

ZINEGOAK JAIALDIA

BILBOKO GAYLESBITRANS ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN NAZIOARTEKO XV. JAIALDIA

OTSAILAK 19 – MARTXOAK 4

GOLEM, BILBOROCK, BILBAOARTE, LA FUNDICION, BBK ARETOA, ARRIAGA ANTZOKIA, CINECLUB FAS, SAREA, VIA DE FUGA

Ezinbesteko hitzordua da egutegi astralean jartzeko, sexu-, identitate- eta genero-aniztasunari buruzko kultura-jardueraz eta zinematografia-hautaketa askotariko batez gozatu nahi dutenentzat. Era berean, erabateko erreferentea da gai horien gaineko zinematografia-ekitaldien artean. Zinegoak Jaialdiak 15. edizioa izango du aurtengoa, eta bi astean proiektzioak, antzerkia, hizketaldiak, aurkezpenak, kontzertuak, jaiak . . . egingo ditu, dozena bat gunetan.

SAIL IN FESTIVAL

MARTXOAK 1- 4

BBK ARETOA, ITSAS MUSEOA

Itsasoaren zale orok daki izarren kokapenari esker gidatzen, norabide zuzenari jarraitzeko. Eta Sail In Festival jaialdiak ere norabide zuzenari jarraitu dio urte hauetan eta 2018 honetan bosgarren edizioa izango du. Lau egunean, itsasoarekin eta nabigazioarekin lotutako film laburrak eta luzeak emango dira. Horrez gain, beste jarduera batzuk izango dira, hala nola nazioartean ospe handia duten argazkilarien erakusketak eta hizketaldiak, entzute handiko gonbidatuekin. Kirolaren eta kulturaren arloko ekitaldi-kontzeptu berri bat bilatu nahian sortu zen jaialdia, diziplina ugaritara irekia (zinema, argazkilaritza, literatura, hizketaldiak, tailerrak eta abar), hartzaile espezialistentzat eta herritar ororentzat. Hainbat balio transmititzeko asmoa du, adibidez, ahalegina, hobetzeko espiritua, taldean lan egitea, naturarekin integrazioa, askatasuna, abentura eta elkartasuna.

ANIMAKOM FEST

ANIMAKOM NAZIOARTEKO ANIMAZIO JAIALDIA

APIRILAK 11 – 15

DOCK ARETOA, BBF BILBAO BERRIKUNTZA FAKTORIA

Marrazki bizidunen bidaia bat proposatu behar dizugu. Animakom Fest jaialdiaren bigarren edizio honetan, nazioarteko 120 film labur baino gehiago emango dira, lehiaketakoak diren bi sailetan (profesionala eta ikasleena). Halaber, zenbait erakusketa egingo dira, nazioarteko jaialdi garrantzitsuenetako hautaketa bat barne hartuko dutenak eta arreta berezia jarrita emakumeez zuzendutako ekoizpenetan. Jaialdiko ekitaldi nagusi moduan, Animakom Award saria ematen zaio animazioaren arloko zuzendari edo profesional bati, bere ibilbide osoari aitortpena egite aldera.

FANT

BILBOKO ZINEMALDI FANTASTIKOAREN XXIV. EDIZIOA

MAIATZAK 4 - 12

GOLEM ZINEMA-AZKUNA ZENTROA, CAMPOS ANTZOKIA, BBK ARETOA

Zinemaren historia beste planeta batzuetatik iristen zaizkigun pertsonaiez beteta dago. Izaki bitxiak eta liluragarriak dira, Fant jaialdiak ordaina egiten dion unibertso fantastikokoak direnak. Udalak antolatuta, fantasiazko generoaren azken berrikuntzak erakusten ditu Atal Ofizialean eta Ikuspegi Fantastikoa Sailean. Eta hori osatzeko, film klasikoak ematen dira, Fant Maisuei omenaldia egiten zaie, generoan erreferentziak diren dokumentalak ematen dira, eta haurrentzako saioak eta film laburren saioak egiten dira. Gainera, Fantrobia saria ematen zaio fantasiazko zineman gorantz doan figura bati eta epaimahaiaren ustez onenak diren lanei. Film laburren kasuan, ikus-entzuleek ere saritzen dute lan bat. Aurreko egunetan, Pre-Fant egingo da, emanaldi gehiago eskainita BBK Aretoan eta jarduerak beste gune batzuetan.

CAOSTICA FILM LABURREN ETABIDEOKLIPEN NAZIOARTEKO JAIALDIAREN 16. EDIZIOA

MAIATZAK 28 – EKAINAK 15

BILBOROCK, BIZKAIA ARETOA, ESPACIO YIMBI ERCILLA, EUSKAL MUSEOA, ARTXANDAKO PATINAJE PISTA, LA RIBERA BILBAO, BASURTUKO OSPITALEA

100 herrialdetatik baino gehiagotatik iritsita, jaialdi honetako lehiaketara 2.500 lan inguru aurkezten dira. Ikus-entzunezko bitxitasuna du ezaugarri, eta aire zabaleko emanaldiak, kontzertuak, performanceak, Dj & Vj saioak, eromena, ihesbidea eta umore ona izaten dira. Unibertso paralelo bat badago, benetan bitxia den jaialdi honetan aurkituko duzu.

EL SOL

PUBLIZITATE KOMUNIKAZIOKO JAIALDI IBEROAMERIKARRA

MAIATZAK 31 – EKAINAK 2

Publizitateko, telebistako, zinemako eta web ekoiztetxeetako espezialistentzat, eta marketinaren arloko gainerako profesionalentzat. Nazioarteko jaialdi honetan, sormena da izarra, eta Estatuko eta Latinoamerikako publizitate-agentzien piezak lehiatzen dira eguzki amandre gutiziatua lortze aldera. Hartara, hiru sari banatzen dira, Urrezko Eguzkia, Zilarrezko Eguzkia eta Brontzezko Eguzkia, sail desberdinetako kategorietako bakoitzean. Jaialdia osatzeko, egun horietan gauzatzen diren hitzaldiak eta jarduerak izaten dira.

ZINEMAKUMEEK GARA

URRIKO BIGARREN HAMA-BOSTALDIAN

BBK ARETOA ETA BESTE GUNE BATZUK

Emakumeez zuzendutako zinemaren erakusketa da, zinematografiaren ortzian emakumeez egindako lana ikusgai egiteko programazio zabal bat eskaintzen duena.

FILM SOZIALAK

ZINEMA IKUSEZINAREN NAZIOARTEKO JAIALDIA

URRIAK 18 - 25

Urtero egin ohi da, Azkuna Zentroan. Aniztasunez eta gizarte-konpromisoz betetako kosmos bat erakusteko egiten da, besteak beste, giza eskubideekin, genero-zuzentasunarekin, garapenerako lankidetzarekin, kulturartekotasunarekin, elkartasunarekin eta abarrekin lotutako gaiak esploratzeko.

MEM JAIALDIA

AZAROAK 1 - 30

Arte esperimentaleko jaialdia, nazioartekoa, Euskadiko artistak eta munduko gainerako tokietakoak hartzen dituena. Ikusmen-arteetako abangoardiako proiektuak, instalazioak, soinu-arteak, kontzertuak, performanceak, dantza, zinema eta bideoak aurkezten dira. Gainera, sortzaileen eta artearen unibertsoaren barnean adierazpide- eta komunikazio-modu berriak erakartzen duten publikoaren arteko topaketak bultzatzen ditu.

BILBAO BIZKAIA DWEK

AZAROAN

Ekitaldi honek arreta jartzen du sormenezko industrien alorrean (arkitektura, eskulangintza, ikus-entzunezkoak, komunikazioa, eduki digitalak, diseinua, barneen diseinua, moda eta bideo jokoak), eta berrogei ekitalditik gora antolatzen ditu Bilboko eta Bizkaiko hainbat gunetan, sormenezko arloetako profesionalentzat eta, oro har, herritar ororentzat.



ZINEBI

BILBOKO DOKUMENTAL ETA LABURMETRAIA NAZIOARTEKO ZINEMALDIA

AZAROAK 9 – 16

ARRIAGA ANTZOKIA, GUGGENHEIM MUSEOA, BBK ARETOA, GOLEM ZINEMAK-AZKUNA ZENTROA, CAMPOS ANTZOKIA, BILBOROCK ETA ABAR

1959az geroztik ibilbide gorena eginda, Zinebi erreferentziatzeko bihurtu da dokumentalen eta film laburren zinemaren barnean. Udalak antolatuta eta Filmen Ekoiztetxeen Elkartearen Nazioarteko Federazioaren aitortuta (FIAPF), Atal Ofizial bat du –hartan zenbait sari ematen dira, besteak beste, ohorezko bi Mikeldi Sari eta Jaialdiko Sari Handia– eta lehiaketakoak ez diren bi sail, bata Espainiako zinemari buruzkoa, InfoSpain, eta bestea euskal zinemari buruzkoa, InfoEuskadi. Horrez gain, hau guztia izaten da: opera prima film laburrei eskainitako nazioarteko lehiaketa, Zinebi First Film-Ziff, Beautiful Docs nazioarteko film luze dokumentalen erakusketa, berriki ekoiztitako euskal film luzeei eskainitako sail bat, Bertoko Begiradak, omenaldiak, profesionalen arteko topaketak, prestakuntza hartzeko tailerrak, hitzaldiak, eta abar.

Edizio bakoitzaren aurreko asteen, Pre-Zinebi izenekoan, Bilboko ikus-entzunezkoen arloko erakundeekin lankidetzan, proiektzioak egiten dira, musika-emanaldiak, jaiak, zinema-eskoletako lanen urteko erakustaldia, Zinebi-Express lehiaketa, Zinebi New Talents sariketa... Zalantzarik gabe, ezinbesteko hitzordua da komunitate zinemazalearen bideko orrian.

AZPLAY'18

BIDEO JOKO INDEPENDENTEN NAZIOARTEKO LEHIAKETAREN IX. EDIZIOA

AZAROAN

AZKUNA ZENTROA

Gogoan al dituzu martetarren jokoak? Bideo jokoek izugarritzko bilakaera izan dute, eta egun benetako superproduktzioak dira. Jaialdi honek profesionalak, bertako enpresak eta bideo jokoaren arloko zaleak biltzen ditu, ikuspena eta zabalkundea emateko beren lanei, eta ezagutzak eta esperientziak trukatzeko. Programak, gainera, barne hartzen ditu erakusketak, hitzaldiak eta tailerrak, azken joerak erakusteko helburuarekin.

FUN&SERIOUS GAMES FESTIVAL

AZAROAREN AMAIERAN, ABENDUAREN HASIERAN

EUSKALDUNA JAUREGIA

Jaialdi hau egiten den bitartean, Bilbo bideo jokoaren unibertsoaren erdigune bilakatzen da. El Correo egunkariak antolatutako ekimen honek –eta Udalak, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak babestutakoa, SPRIren bidez (enpresa garapenerako agentzia)– helburua du bideo jokoaren ekoizpenaren, zuzendaritzaren eta garapenaren arloko artisten eta profesionalen lana aitortu eta bultzatzea, programa oso baten bidez. Zehazki, programa horrek barne hartzen ditu hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, networking-a eta jarduerak, bideo jokoaren arloko profesionalentzat eta herritar ororentzat. Jaialdia amaitzeko, aurreko edizioetan bezala, gala egiten da, urteko bideo joko onenei sariak emateko. Arlo honetako izarak dira, etengabeko hedapenean lurraren bazter guztietan.

MENDI FILM FESTIVAL

MENDIKO ZINEMARI BURUZKO BILBOKO NAZIOARTEKO JAIALDIA

ABENDUKO 1. HAMABOSTALDIAN

BBK ARETOA ETA BESTE GUNE BATZUK

Zenbait mendi hain garaiak dira, ezen espaziotik ikusten baitira. Eta jaialdi honek ere garaiera nabarmena du. International Alliance for Mountain Film elkarteak kidea da, eta mendiko zinemas eta, oro har, abenturakoaz aritzen da, munduko bolako altuera ezkutuko enetan urte osoan ekoiztutakoak. Irakaspen eskolek, erakusketek, eta errealizadoreekin, mendizaleekin eta alpinistekin egindako topaketek lehen mailako programazioa osatuko dute. Gainera, mendiaren kulturaren balioak transmititu eta haiei ekarpena egiteagatik mundu mailan erreferentziatzekoak diren pertsoekin elkartzeko eta biltzeko tokia ere bada.

TRACKING BILBAO 6. EDIZIOA

ABENDUKO 2. HAMABOSTALDIAN

BILBOROCK

Caosticak eta Borja Crespo bilbotar artistak antolatutako prestakuntza-, hausnarketa- eta dibertsio-jardunaldiak dira, kultura digitala orbitan jartzen dutenak. Ekintzaileak interkonektatu egiten dira sarearen bidez, ikastaro, tailer, eskola magistral, hitzaldi, topaketa, ikuskizun eta kontzertuekin.

EGUNIK LABURRENA


ABENDUAK 21

Izar handiak eta txikiak daude, film luzeak eta laburrak dauden moduan. Bi kasuetan beren argiarekin egiten dute distira. Nazioarteko ekitaldi honen helburu nagusia da zinematografiaren esferan film laburra aldarrikatzea. Eta Bilbok bat egin nahi du ekimen horrekin, Udalak eta Plátano Bolígrafo ekoiztetxeak elkarrekin antolatuta film laburren jai handi bat. Jai handi horrek barne hartzen ditu proiektzioak eta topaketak film laburren zuzendariekin.

GALDEKETAUN LEHIAKETA

ABENDUAK 1 – URTARRILAK 31

Udalak sustatutako lehiaketa da, 12 eta 17 urte arteko gazteentzat. Galdeketaun sakelakorako aplikazioaren bidez egiten da, eta teknologia berriak eta euskara sustatzea konbinatzen ditu. Nontzeberri.com kultura-atariarekin, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoarekin, Euskal Museoarekin eta Bilboko Berreginen Museoarekin elkarlanean, lehiaketa honek eztanda-uhin bat eragin nahi du, gure hizkuntza egunetik egunerako herritar gehiagorengana hel dadin.



BILBAOMUSIKA

Musikako Udal Eskolak instrumentuetako eta abesbatzako espezialitateen eskaintza oso bat du, eta bai kontzertuen, kalejiren, entzunaldien, erromerien, tailerren eta lehiaketen programa bat ere, oso joera desberdinetako musikarekin eta dantzarekin lotutakoak: modernoa, tradizionala, folklorikoa, sinfonikoa, polifonikoa eta abar. Musika-estiloen bat-egitea, ikasi eta musika goreneraino eramateko.

DENBORALDI SINFONIKOA

EUSKALDUNA JAUREGIA

Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesari esker, Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Erik Nielsen zuzendari titularrak kontzertu sinfonikoen, ganberako kontzertuen eta kontzertu didaktikoen aukera askotarikoa eskaintzen dute denboraldi guztietan. Kontzertu horiek osatzeko, gainera, errezitaldiak egiten dituzte Bizkaiko gainerako tokietan, eta birak eta irteerak nazioartean. Izan ere, musikak ez du mugarik. Eskaintza horren osagarri moduan, Euskadiko Orkestra Sinfonikoak denboraldi guztietan Euskalduna Jauregian ematen dituen kontzertuak daude. Entzun daitezkeen noten erabateko sinfonia.

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA ETA BILBOKO TXISTULARIEN BANDA

BILBOKO UDAL MUSIKA BANDA

Musika Banda izar musikalez beteta dago, eta eragile nabarmena da Bilboko kultura-jardunean. Ekitaldi ofizialetan, auzoetako kontzertuetan, BBK Aretoan eta Areatzako Kioskoan parte hartzen du, eta, gainera, kontzertuen denboraldian aritzen da Euskalduna Jauregiko auditoriumean, Azkuna Zentroan eta Bilboko Juan Crisóstomo de Arriaga Musika Kontserbatorioko auditoriumean.


BILBOKO TXISTULARIEN BANDA

Musika tradizionalenak ere badu bere toki. Bilboko Txistularien Bandak jardueren egitarau zabal eta askotarikoa izaten du, protokolozko eta inauguraziozko ekitaldietan, kalejiretan, alardeetan eta auzoetako kultura-programetan parte hartuta eta elkarlanean arituta musikari, musikagile, eta Hiriko kultura- eta gizarte-eragileekin. Euskalduna Jauregian egiten duen kontzertuen urteko zikloa nabarmendu behar da.

ZAWP ETA HACERIA ARETOA

ZAWP (Zorrotzaurre Art Work in Progress) Haceria Arteak kultura-elkarteak abiarazitako mugimendu bat da. 2008an jaio zen, Deustuko Erribera eta Zorrotzaurre auzoetako hirigintza-planeko "bien bitartean" aukerak sortzea laguntzeko asmoarekin, auzo horien biziberritze sozial, ekonomiko eta kulturean lan eginez, Bilboko auzo horiek ere beren argia izan dezaten distira egiteko. Haceria, bere aldetik, 1998an sortua, sortzeko eta erakusteko gune erabileraniztun bat da, eta egun prestakuntza- eta kultura-jarduera sortu eta zabaltzen duten gaikako klub desberdinek eratzen dute: Haceria Jazz Club, Haceria Flamenco Club eta Haceria Black Club musika-klubak eta Haceria Eszeniko Club antzerki-kluba. Haceria Aretoak, gainera, musika-grabazioak, bideo klipak edo antzezlanak sustatzeko bideoak egiteko eta probasiaoak egiteko toki bat eskaintzen du.

MUSIKA:
ESPAZIORAINO
IGOTZEN DIREN
NOTAK



MUSIKA MÚSICA

MARTXOAK 1 - 4

EUSKALDUNA JAUREGIA

Bilbao 700 Fundazioak antolatuta, nazioarteko jaialdi honek Bilbon musika klasikoaz gozatzea gonbidatzen du. 2018 honetako edizioan, gerren arteko aldia izango da protagonista. Historiako aldi horretan, musika klasikoa ez zen urrun egon etapa historiko berri horretatik, bere gorabehera sozioekonomiko eta kulturekin. Ikuskizun ugari aurkeztu ohi du, nazioarteko interpretatzaileen eta orkestren parte-hartzearekin, eta bai saio didaktikoak ere ikasleentzat, tailerrak familientzat, mahai-inguruak eta eztabaidarako guneak.

BAS

BILBAO ARS SACRUM

MARTXOAK 19 - 25

ENKARNAZIO ELIZA (ATXURI)

Erligioak ere badu bere tokia musikaren unibertsoan. Bilbao Ars Sacrum –hau ere Bilbao 700 Fundazioak antolatuta– eliz musikako kontzertuen ziklo bat da, Aste Santuaren atariko moduan egiten direnak. Programan, musikaren arloko profesional ospetsuek parte hartu ohi dute, taldeek eta ahots bakarlariak, eta, beren emandien bidez, garai desberdinetako espiritualtasunean eta erlijio-sentimenean ideia hartutako musika-tradizio askotarikoaren erakuskari bat eskaintzen dute.

BILBAO BBK LIVE

UZTAILAK 12 - 14

KOBETAMENDI

Hiru egunean, Bilbo mundu osoko musikaren epizentro bihurtu ohi da. Kobetamendi gune nagusia izanik, pop rockeko egungo talde nagusiak gozatzeko aukera izango da, zuzenean eta kontzertu handietan. Musika-ekitaldi hau Udalak sustatzen du, Last Tourrekin elkarlanean eta BBKren babesarekin, eta nazioartean hainbat aitorpen egin zaizkio.

BJC BILBAINA JAZZ CLUB ELKARTEA

CONDE DUQUE HOTELA, BBK ARETOA

Galaxiako beste toki batetik jazz-akordeak iristen zaizkigu Bilbora. Horretaz arduratzen da BJC Elkartea, 1991z geroztik jazzeko nazioarteko zirkuitua aurkeztzen baitu Bilbon, jarduera garaikidean musika-estilo honen zabalkundearen hutsune handi bat estalita, eta lehen mailako musika-proposamenak ekarrita astero. Bi ziklo garatzen ditu, Auditorio eta Hileroko programazioa, Conde Duque Hotelean eta BBK Aretoan, hurrenez hurren. Auditorio zikloaren programazioan soil-soilik kalitatea nagusitzen da, hiriburu handietako zirkuituetako ospetsu bihurtutako izarrek ekartzen ditu, abangoardiako sortzaileak eta nazioartean etorkizuna duten euskal musikariak. Zalantzarik gabe, izarren zerrenda. Hileroko programazioa zikloa publiko berriak sortzera bideratuta dago. Hartara, hileroko programazioak jazzak beste estilo batzuekin bat egiteko proiektuei heltzen die (bossa, kuba, flamenkoa, klasikoa eta abar). Sormenezko big bang-a ikus-entzule gehiagorengana iristeko, kalitateari uko egin gabe.

KAFE ANTZOKIA

Bilboren bihotzean dagoen gune hau topagunea da bilbotar euskaldunentzat eta beste toki batzuetakoentzat, eta Hiriaren eta euskal kulturaren nazioarteko erreferentzia nagusietako bat. Zuzeneko musikan egiten duen eskaintza nabarmendu behar da, Bilboko kultura-unibertsuaren barnean agertoki nagusietako bat baita. Euskal musikako profesional gehienek eta atzerriko milaka taldek eta bakarlariak beren kontzertuak eman dituzte hemen zaleentzat, gunearen programazio askotarikoak erakarrita.

BILBOROCK

Toki honetan, gazteek harremanak izaten dituzte, sortu egiten dute, berritu, esperimentatu eta esperientziak partekatzen dituzte. Kosmos propio bat da, musikako ikuskizunak ez ezik, zinemakoak, antzerkikoak, dantzakoak, instalazioak, laborategiak, hitzaldiak, aurkezpenak eta abar ere hartzen dituen. Udal gune honek areto erabileraniztuna du jardueretarako eta topagunerako, Lab aretoa esperimentaziorako eta prestakuntzarako, eta probasaiotarako aretoak, musika-taldeentzat. Antolatzen dituen jardueren artean, aurtien, **Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketaren XXX. edizioa** nabarmenduko da, Europako taldeentzat, 3 modalitate hauetan: pop rocka, metala, eta elektronika eta beste joera batzuk. Apirilean eman behar da izena. Hautatutako taldeek urrian eta azaroan emango dituzte kontzertuak.

BILBOKO KORAL ELKARTEA

Erreferentzia puntuetako bat da, bere ibilbidea eta ospea aintzat hartuta, musika-ortziaren barnean. 1886an sortua musika garatzeko, oro har, eta abesbatzarako, bereziki, 1.000 bazkide ditu, ia 500 abesbatzako abeslari eta 350 ikasle **musika irakaskuntzarako zentroan**. Urtean zehar, jarduera bizia izaten du abesbatzaren arloan eta sinfonikoan, sarritan agertokia partekatuta Bilbao Orkestra Sinfonikoarekin edo jaialdietan parte hartuta, adibidez, Musika-Músican. Halaber, **Bilboko Korala Gertutik** zikloa gauzatu ohi du, musikaren lorratza Bilboko auzo desberdinetara eramanez. Eta oporraldietan, musika-udalekuak antolatzen ditu ikasleentzat eta entzunaldi irekiak herritar ororentzat.

BILBOLOOP JAIALDIA

AZAROAN

KAFE ANTZOKIA

Goraka ari diren izarren bila, jaialdi honek talde hasiberri onenak ekartzen ditu Bilbora urtero, bertakoak, Estatukoak edo nazioartekoak izan, eta kontzertuak ematen dituzte Kafe Antzokian. Horrez gain, doako hainbat jarduera paralelo antolatzen ditu, Bilboko zenbait lokaletan.

ELKARTE FILARMONIKOA

1896an sortua, musika-elkarte pribatu honek bere bazkideen finantzaketari esker garatzen du bere lana. Kalitate handiko kontzertuen denboraldia eskaintzen du, bere aretoan, hirigunean, nazioarteko ortziko musikari handiekin. Eta horrez gain, beste jarduera batzuk eskaintzen dizkigu, hala nola topaketak artista gonbidatuekin, hitzaldiak eta irakurketa-kluba.

BILBOKO AKORDEOI ORKESTRA SINFONIKOA

Sortu zenetik 55 urte joan direnean, orkestra berezi honek aktiboki parte hartzen jarraitzen du Bilboko kultura-planetan. Hainbat hitzordu, besteak beste, Fuelles Picantes-Spicy Bellows BBK Aretoan, Gau Zurian parte hartzea, Musika gozatzeko. Zure auzoan zikloa, hiriko barrutietan ibiltzen dena, eta Eguberrietako galak erabateko erreferentziak dira oraindik ere zuzeneko musikaz gozatu nahi dutenentzat.

Halaber, bertako eskolak bidea ematen du akordeoiaz eta musikaz edozein adinetan gozatzeko eta ikasteko, orkestrako maisuekin, bakoitza bere erritmoan eta aurretiazko ezagutzak eduki behar izan gabe.



ONDAREA ETA IDENTITATEA: GURE IDENTITATEARI ZABALDUTAKO ESPAZIOA



BILBOKO UDAL ARTXIBOA

Gure Hiriari buruz jakin nahi duzun guztia aurkituko duzu ezin hobeto antolatuta dauden dokumentuen galaxia itzel honetan. Udal Artxiboan, administrazio-espeditenteak ez ezik, beste mota batzuetako dokumentuak ere kontsultatu daitezke, esate baterako, argazki-bildumak, planoak, kartelak eta dokumentu grafiko desberdinak, udal funtsari eta eman dizkieten edo eskuratu dituen beste funts batzuei dagozkienak. Halakoak dira, adibidez, Ricardo Bastida arkitektoarena eta La Gaceta del Norte egunkari desagertuaren argazki-funtsa. Gainera, Interneteko sarearen bidez, Udalbatzaren agiriak eskura daitezke (1800. eta 1988. urteen artekoak), udal oroitidazkiak, izendegiak eta estatistika-buletinak, eta Bilbokale-ko datu baseak Bilboko kale-plazen izen historikoak ikusteko aukera ematen du, eta Eraikuntza espeditenteak izenekoak hiriko eraikinetan egindako lan handienei buruzko informazioa jasotzen du.

BIZKAIKO FORU AGIRITEGI HISTORIKOA

Gure lurraldeko dokumentu-bilduma handiena ongi zainduta dago Foru Aldundiaren agiritegian. Historiako mendeak herritarren eskura, Bizkaiko dokumentazio historiko guztia, jatorria eta euskarria edozein delarik, legeak dokumentu historikoetarako eta haien kontsultarako ezartzen duen muga besterik ez duela. Agiritegia 1990. urtean eratu zen, Bizkaiko Foru Aldundiaren beraren funtsak bilduta; garai hartan, Gernikako Batzar Etxean, Bizkaiko Aldundiaren Agiritegian eta Aldundiaren beraren bulegoetan zeuden funts horiek. Ondoren, beste funts batzuk gehitu dira: Bizkaiko korrejidorearen, haren tenienteen eta XX. mendearen aurreko beste erakunde judizial batzuen funts judizialak, hitzarmen bidez sartzeari erabaki duten lurralde historikoko udalen funtsak, sakabanaturik zeuden notario-protokolo batzuk, jatorriz Bizkaian zeuden hainbat erakunde eta enpresaren materialak eta Bizkaiko familia batzuen agiritegi batzuk.

ONDARE ARETOA

Bizkaiko Foru Aldundiaren areto honek 400 metro koadro ditu erakusketetarako. Erakunde horrek ekoiztiko eta beste batzuek antolatutako erakusketak hartzen ditu, hainbat gairen gainekoak, baina arreta berezia jarrita gure kultura-ondarearekin lotutakoetan.

EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA

Euskadiko Artxibo Historikoaren egungo egoitza 2014ko urtarrilaren 23an inauguratu zen, Bilboren erdigunean, eta barne hartzen ditu Euskadiko memoria historikoaren zatiak, paperezko altxorak, digitalizatuak, artxibatuak eta toki bakar batean babestuak. Eraikinean, dokumentu zabalak daude, lehen Eusko Jaurlaritzako kideen arteko gutun-korrespondentzia, txostenak eta abar, eta bai partikularren dokumentuak, euskal gizarteak denboran zehar izan dituen bizimoduaren erakusgaiak. Izan garenaren eta egun garenaren gaineko gune bakana.



DANTZA PLAZETAN

Astronautek espazioan grabitatzten dutenean duten dotoretasun berbera ikusten da gure euskal dantzen erakustaldietan: kalejirak, alardeak eta erromeriak izaten dira urte osoan. Udalak antolatzen ditu Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin elkarlanean, Salbatzaile, Gaztedi, Ondalan, Bihotz Alai, Beti Jai Alai, Ibai Arte eta Deustuko Folklore Taldeak bertako taldeen esku. Santiago, Aita Donostia, San Pedro, Zumarraga, Arangoiti, Elorrieta, Ibarrekolanda, Deustuko Erribera, San Ignazio, Zorrotza, Areatza eta Arriagako kale-plazetan izaten dira saioak.

Aurten, berrikuntza moduan, gure folklorearen erakusgarri bat aurkeztuko da Guggenheim Museoaren inguruan.

BILBAO IZAN

Gure ontzitik aterako gara paseo espazial bat egiteko Hiriko auzo desberdinen historian. Bilbao Izan udal programa bat da, eta helburua du historiaren arloko ondarea sustatzea eta zabaltzea, bai Bilboko auzoen historiari buruzko bideo aurkezpenen eta argazki-erakusketen bidez, bai Bilboko eraikin berezi eta bakanetara bisita gidatuak egitearen bidez. Apirilean, maiatzean, ekainean eta irailean egingo dira.

LORALDIA FESTIBALAREN IV. EDIZIOA

LAU SORMEN-HAIZETARA!

MARTXOAK 5 - 26

ARRIAGA ANTZOKIA, BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA, AZKUNA ZENTROA, GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA, BBK ARETOA, BILBOROCK, LA FUNDICION, GOLEM ZINEMAK, KAFE ANTZOKIA, CAFE BILBAO, BIBA!

2018 honetan, Loraldia Festibalak 4. edizioa egingo du, Lau sormen-haizetara! lelopean, euskararen eta euskal kulturaren inguruan. Ikus-entzule orori irekia, emozioen jaia da festibala, hauek guztiak eskaintzen dituen: antzerki- eta musika-ikuskitzuna (Anton Abbadia, Dublinetik Hendaiara), musika (Amorante, Mursego, Estitxu, Inun), bakarriketak, jazz, irakurketa musikatuak (Herejeen alaba, Joan-etorriak), antzerkia (Hiru emakume), dantza eta antzerkia (Sagartu), dantza garaikidea (Lekeitioak), pastorala, bertsolaritza, literatura, bertsoa eta musika (Etorkizunak harrapatuta), literatura, zinema eta musika (Isturitzetik Etiopian barrena), film laburren proiektzioak, mintegi musikatuak, eta abar. Kultura eta euskara batuta, konstelazio handi bat eratzen dute.

BASQUE FEST

BASQUE LANDS FESTIVAL

MARTXOAK 28 – APIRILAK 1

Aste Santuan, Bilbok bere apaingarri onenak jartzen ditu, bai jaiegun horietan bisitan etortzen direnentzat, bai bertakoentzat ere. Euskal kulturaren eta abangoardiaren jaialdi hau Bilbao Turismok antolatzen du, eta musika, dantza, gastronomia eta kirola batzen ditu, hiriko hainbat gunetan gauzatzen diren adierazpen artistikoen aukera zabal baten bidez. Erakusketak, dantza, kaleko antzerkia, haurrentzako animazioa, eskulangintza, kontzertuak, euskal diseinuaren erakusketa eta salmenta, eta tradiziozko kirolen erakustaldiak izango dira hiriko kaleak alaitzeko jaiegun horietan, izarretako koloreak emanez.

DANTZAK ESKOLETARA

IKASTURTEAN ZEHAR

Euskal dantzen ikastaroak, zenbait ikastetxe publikotan ematen direnak, Haur Hezkuntzako 3. mailatik aurrera eta ikasturtean zehar. Bizkaiko Dantzarien Biltzarrarekin lankidetzan arituta, gure folklore berezia zaintzea da asmoa. Gure historiaren zatia da, eta begiratu egin behar dugu.

UDABERRIKO BERTSO SAIOAK

MAIATZEAN

KARMELO PLAZA (SANTUTXU)

Bertsolarien emanaldi tradizionalak eta ikuskizun berritzaileak, bertsolaritza eta beste kultura-adierazpen batzuk batuta. Udalak antolatuta, Santutxuko Bertso Eskolarekin elkarlanean, lau asteburutan, Bilboko Santutxu auzoa musika eta poesia batzen dituzten euskarazko errezitaldi hauen agertokia izango da.

BILBAINADA LEHIAKETA

Bilboko soinu-unibertsioan bilbainadek ere beren tokia eduki behar dute nahitaez. Udalak sustatzen duen lehiaketa honek, Radio Nervión eta TeleBilbaorekin elkarlanean, Bilboko herri-kantak bultzatzeko helburua du. Konposizio berrietarako deialdia apirila eta ekaina bitartekoa da, sariak Aste Nagusian banatzen dira eta irabazle suertatu diren bilbainaden CDa aurkezteko gala urte amaieran egiten da, Arriaga Antzokian.

XXXVIII. BIZKAIKO DANTZARIEN EGUNA

MAIATZAK 20

Aurten, Bizkaiko Dantzarien Biltzarrekoak diren dantza-taldeen 38. topaketa Bilbon egingo da. Gutxi gorabehera 75 taldek parte hartuko dute, eta kalejiran abiatuko dira Areatzatik On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusiraino. Zehazki, dantzen programa hau eskainiko dute: Dantzari dantza, Gipuzkoako Brokeldantza, Jolas dantza, Eltziegoko dantzak, Gorulariak, Jauziak, Kaixarranka eta Larrain dantza. Bilboren eratzunetako bidaia hau arratsaldean amaituko da, erromeria eginda.

OPEN HOUSE BILBAO

IRAILAK 22 - 23

Open House Bilboko ate irekien jaialdi nagusia da. Asteburu batean, Bilbok bere burua zabaltzen dio munduari hiria ezagutarazteko. Aukera ezin hobea da bertakoek eta bisitariek hiria hobeto ulertzeko, bere arkitekturaren eta hirigintzaren bidez. Bisitak doakoak dira, eta gidari batek azalpenak ematen ditu. Bilboko eraikin nagusiek, bere arkitekturak, espazio publikoek, azpiegitura handiek... bere izateko arrazoia dute, eta atzean, sarritan ezezagunak diren erabakiak, istorioak, anekdotak eta xehetasunak izaten dituzte. Open House jaialdiak gure ekosistema ezagutu eta hobeto ulertzeko bidea ematen ditu, era dibertigarrian eta aurrez aurre.





JAIK ETA AISIA: ARGIZAGIAK LERROKATU EGINGO DIRA HIRITAR OROREN GOZAMENERAKO

ERREGE MAGOEN DESFILEA

URTARRILAK 5

*ON DIEGO LOPEZ HAROKOAREN KALE
NAGUSIA - BUENOS AIRES KALEA*

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Ekialdeko izarrak gidatuta iritsiko dira Bilbora. Errege Magoen tradiziozko desfilea, Udalak antolatuta, Bilboko On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusian eta Buenos Aires kalean ibiliko da urtarrilaren 5ean, eta gero udaletxeko Arabiar Aretoan harrera egingo diete erregeei.

BILBOKO ASTE NAGUSIA

18 - 26 AGOSTO

Jaialdien jaialdia da. Gure aste izarra da. Askotariko jardueraz beteriko bederatzi egun, den-denak doakoak eta gehien-gehienak aire zabalekoak. Musikaren arloan, 100 bat jarduera eskaintzen dira, entzule mota guztientzat, Bilboko hainbat tokitan; su festak zerua argitzen du gauero; antzerkia dago kalean, handientzat eta txikientzat; sukaldaritzaren arloko tradiziozko lehiaketak egiten dira; pilota, arrauna, herri kirolak... Senitartekoekin edo lagunekin, gauzez edo egunez, atsegin hartzeko jarduerak dira denak. Jarduera horiek beti daude lotuta hainbat baliori: aniztasuna, kalitatea, parte-hartzea, nortasuna, emakumeen eta gizonen, eta euskararen presentzia orekatua. Azken batean, helburua da bilbotarrek eta bisitariek gozamina hartzea, parte-hartzea oinarri duen hiri ireki honen jaietan. Izan ere, Bilboko ortzian errespetua eta alaitasuna dira nagusi.

ARATUSTEAK

OTSAILAK 8 - 13

*ALDE ZAHARRA, ON DIEGO LOPEZ
HAROKOAREN KALE NAGUSIA, ALBIA
LORATEGIAK ETA ZABALGUNA*

Desfileak, txarangak eta karrozak ibiliko dira Alde Zaharrean eta On Diego Lopez Harokoaren Kale Nagusian nagusiki, Farolinek (bere jarduera profesionala dela-eta nabarmentzen den bilbotarra, eta "botxera" arrandia egiten duena) eta Zaranbolasek (bilbotar lasaia, ezerk eragiten eta bizimodua aldarazten ez diona) lagunduta. Jaien Batzordeak aukeratzen ditu pertsonaia horiek. Egun horietarako, eta Esne Bideko beste toki batzuetatik iritsitakoak balira bezalako izakiz betetako eremu batean bezala, hainbat kultura-jarduera antolatuko dira: kontzertuak, antzezlanak, haurrentzako tailerrak, mozorroen lehiaketa, dantzak eta abar.

GAU ZURIA

EKAINAK 17

Bilbok dirdiratu egingo du, galaxiako zeinahi tokitatik miresteko moduan. Bilbao 700 Fundazioak antolatuta, urtero egiten da Hiria urteurrenaren oroitzapena, aire zabaleko ospakizunak antolatuta gau baterako. Gau horretan, hiriko toki esanguratsuenek ohikoa ez den itxura hartzen dute, antza aldatuta edo jarduerak hartuta, herritarrei kultura-bisita desberdin bat eskaintze aldera. Gau horretan, Bilboren distira izarrena baino handiagoa izaten da, argiz, soinuaz eta kulturaz jantzita, eta bertako eta nazioarteko artisten sorkariekin gozatuta.



BALEAREN DESFILEA

ABUZTUAK 20

**ON DIEGO LOPEZ HAROKOAREN KALE
NAGUSIA**

Desfile jendetsu hau Bilbao 700 Fundazioak antolatzen du, eta Aste Nagusiko lehen larunbatean izaten da. Herritar ororentzat izaten da, baina, batez ere, txikiak txoratzen ditu. Baly balea, Olagarro, Txangurru eta Bisigu lagunekin, Bilboko kaleetan ibiltzen da eta meteoritoen euria izaten da, konfeti forman, dena kolorez, soinu eta alaitasunez betetzen.

FAIR SATURDAY

**AZAROKO AZKEN
LARUNBATEAN**

Bilbao Ekintzak kultura-mugimendu hau babesten du. Zehazki, mugimenduaren asmoa da gizartearen mobilizazio jendetsua eragitea kulturaren alde. Parte hartzen duen kultura-ekitaldi bakoitzaren balioaren zati bat erakundeek eurek eta artistek aukeratutako kausa sozial batera bideratzen da. Eta mugimendu kosmiko bat balitz bezala, Bilbon 2014an sortu zen ekimen honi munduko ia 100 hiri batu zaizkio.

ONGIETORRIA OLENTZERORI

ABENDUAK 23

MOYUA PLAZA - ARRIAGA PLAZA

Euskadiko mendietan ezkutatuta dagoen baserria utzi eta Olentzero opariz beteta iristen da Bilbora, pottoka erraldoi baten gainean eta segizioak lagunduta: Mari Domingi eta Basajaun lagunak, antzara baten gainean, eta Lamina eta Galtzagorriak, triziklo handi-handi baten gainean. Gainera, berarekin ekartzen du zaldiko maldikoa. Olentzero ikazkin ospetsua, lorratz magikoak inguratuta, 18:00etan agertuko da Moyua plazan, eta kaleetan ibiliko da, segizio saltariak lagunduta, Arriaga Antzokiraino. Han emango du gaua.

HARRERA OLENTZERORI

ABENDUAK 24

**ARRIAGA ANTZOKIA
11:00 ETA 14:00 ARTEAN**

Haurren unibertsoan murgilduta jarraituko dugu. Olentzerok eta Mari Domingik Arriaga Antzokira joaten diren neska-mutiko guztien nahiak eta eskariak jasoko dituzte goizean. Gero, arratsaldean, Bilboko auzoetara joango dira oso bidaia berezi batean, ilusioa banatzera, eurentzat urte osoko gaurik luze eta lanpetuena dena eta txikientzat gaurik magikoa dena hasi aurretik.

GABONAK ARTE

AZKUNA ZENTROA

Jolas-heziketa programa berezi eta berritzailea, Gabonetan egiten dena. Asmoa da familiak kultura-unibertsuaren erdigunean kokatzea, beren jakin-nahia bultzatzeko eta harritzeko sortze-esperientziak eskainita. Jarduerak askotarikoak izateak ahalbidetzen du arte- eta kultura-diziplina desberdin hauek lehen pertsonan, aurrez aurre, bizitzea, oso egungoa den modu batean: antzerkia, dantza, arkitektura, musika, ikus-entzunezkoak eta abar.

IDEIAK MARTXAN

3, 2, 1... Prest al duzu zure ideia jaurtiketarako? 14 eta 35 urte arteko gazteei zuzenduta, Bilboko Udalak sustatutako eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako deialdi honen asmoa da udal programazioa aberastea, gazteek proposatutako eta Bilbao Gazte 2016/2019 garatzeko balioko duten ekimenak barnean hartzearen bidez. Proposamenak bakarka edo taldeka aurkez daitezke (baldintza bakarra da taldeko kideetako bat, gutxienez, Bilbon erroldatuta egotea), eta gai hauetakoren batekin lotuta egon daitezke: kultura, euskararen erabilera soziala sustatzea, aisia, diseinua, arkitektura, hirigintza eta ondarea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, zientzia eta teknologia, berrikuntza eta gizarte kohesioa, kirola eta gorputz jarduera, ingurumena eta iraunkortasuna, elkartasuna eta sentsibilizazioa. Zure hondar-alea jarri nahi baduzu Bilboko unibertsoan, aurkeztu zure ideiak.



HURBILEKO KULTURA: KULTURAREN LORRATZA BILBOKO AUZOETARA IRISTEN DA

*EGUZKI SISTEMA BERE 8
PLANETEKIN BEZALAKOA,
HALAKOA DA BILBOKO
UNIBERTSOA BERE 8
BARRUTIEKIN. ETA BILBOKO
AUZOEK KULTURA-ESKAINTZA
ONA IZATEA LEHENTASUNA
DA UDALBATZARENTZAT.
HORI DELA-ETA, UDALAK
JARDUEREN AUKERA
ASKOTARIKOA ANTOLATU ETA
SUSTATZEN DU URTE OSOAN.
HONA HEMEN ADIBIDE
BATZUK.*

BILBO BARRUTI ESZENIKOA

- **Bilboko Zirkuitua:** Bertako taldeek antzerki- eta dantza-emanaldiak egingo dituzte urtariletik martxora eta irailetik abendura, barrutietako udaltegietan.
- **Umorezko Antzerki Erakustaldia:** Errekaldeko udaltegian, martxoko ostiraletan.
- **Udaberrian Eszena Kalera:** Kaleko arteen zirkuitua Bilboko auzoetan, maiatzean eta ekainean. Barnean hartzen ditu zirkuko, clown-eko, magiako, antzerkiko eta abarretako emanaldi gorenak.

BILBO MUSIKA BARRUTIA

- **Bilbao Distrito Jazz:** Jazz kontzertuen zikloa otsailaren erdialdetik martxoaren erdialderako ostiraletan, udaltegietan. Bilbaína Jazz Club kultur elkartearekin elkarlanean.
- **Musika-ikastaroak:** Gitarra, baxua, bateria, musika-informatika eta home-studio-a eta txalaparta ikasteko, Otxarkoagan, ikasturtean zehar. Tendel-Tularrekin lankidetzan.
- **Musika-zikloak:** **Poltsiko Musika** kontzertuen zikloa, martxoan, **Musika dibertigarria da** kontzertu didaktikoen zikloa, maiatzan, eta **Mila Musika Haria** gitarrari eta hari-instrumentuei eskainitako zikloa, azaroan, denak Abando-Barrainkuan, eta **Xarma duen itsasadarra** flamenkoko topaketak, irailean, eta **Bazter Fest**, hip hop femeninoko jaialdia, Ibaiondo barrutian.
- **Barrutiak Kantari:** Abesbatzako kontzertuen zikloa, udaberrian, Bilboko auzoetan.



BILBO BARRUTI BISUALA

- **Ikus-entzunezko ikastaroak:** Irratia, Reflex kamerak eta bideo edizioa Otxarkoagan, ikasturtean zehar. Tendel-Tularrekin elkarlanean.
- **Expodistrito:** Margolaritzako, argazkigintzako eta beste arte batzuetako erakusketak, bertako sortzaileenak, urte osoan, udaltegietan (uztailean eta abuztuan izan ezik). Erakusketen katalogoa ematen da argitara hiru hilean behin.
- **Zinezko uda:** Aire zabaleko zinemasaiak, familia osoarentzat eta barruti guztietan, uztail eta abuztuan. Euskal Herriko eta Estatuko film arrakastatsuenak eta nazioarteko ekoizpenak emango dira.
- **Zinebiklub:** Zinebiko aurreko edizioko film laburren saiak. Gaiari arabera antolatzen dira, udalategi desberdinetan eta urtean zehar.

BILBO AISIA BARRUTIA

- **Harrapazank:** Kultura-eskaintza erakargarri eta berritzailea, 9 eta 18 urte arteko gazteentzat, udaltegietan eta BilboRocken, otsailetik maiatzera, euskara erabiltzea sustatzeko.
- **Ikusi eta Ikasi:** Kulturako, heziketako eta aisiako zirkuitua, euskarazkoa, 2 eta 8 urte arteko neska-mutikoentzat eta gurasoentzat. Urtarrilaren 20a eta apirilaren 20a artean egiten da, eta jarduera ugari eskaintzen dira (antzerkia, ipuin-kontalariak, tailerrak, hitzaldiak gurasoentzat), udaltegietan, El Carmen Aretoan, eta Viuda de Epalza, Iruarteta eta Zamakola ikastetxe publikoetan.
- **DaraBilbo:** Urtean zehar askotariko jarduerak egiteko programa, Bilboko euskaltegien sarearekin elkarlanean antolatua. Auzoetan euskara erabiltzea sustatu eta euskara arlo gehiagotara zabaltzeko aukera eskaini nahi du. Jarduera izarrak: tailerrak, bisita gidatuak museoetara, kultura-ibilbideak Bilbon. . .
- **Europako Ikerlarien Gaua:** Zientzia jendarteratzeko proiektua, irailaren 28an eta 29an egiten dena, Deustuko udalategian. Xedea da ikerketa eta haren protagonistak herritarrei gerturatzeko.
- **Istori Blziak:** Ahozko kontaketa gainekeko programa. Uribarri barrutian egingo da, otsailaren 19a eta martxoaren 4a artean, haur, gazte eta helduentzat.
- **Dantza-saiak:** Urte osoan, Otxarkoagako udalategian, Levante plazan, La Casillan. . .
- **Bidaiarien Txokoa:** Bidaien eta beste kultura batzuen unibertsoari buruzko programa, hitzaldiak, proiektzioak eta erakusketak barne hartzen dituena, martxoan, Begoña-Santutxun.
- **Plazarik Plaza:** Folklore bultzatzeko programa, Basurtu-Zorrotzako barrutian, urriko aurreneko hamabostaldian.

KULTURA KALEZ KALE

MAIATZA - EKAINA

Udaberrian argizagiak lerrotatu egiten dira eta, horren emaitza moduan, kultura kalera irteten da, indarrez. Egun horietan, animazioko eta arte eszenikoetako programazioaren ezaugarria da agertoki gisa kalea erabiltzea lehentasunez. Antzerkia, magia, clown-ak, zirkua, euskal dantzak, kontzertuak, abesbatzak, dantza-saiak, musika-kalejirak, hitzaldiak, tailerrak. . . 200 ekitaldi baino gehiago dira. Horiez gain, gaikako erakusketak egiten dira barrutietan: **Clown Zorrotza**, **Zirkualde** zirkujaialdia Errekalden, **Magia Topaketak** Otxarkoaga-Txurdinagan, **Euskal Jaia** Arangoitin, **MusikAuzo**. . .

BLV-ART

EKAINAK 7 - 16

BILBO ZAHARRA, SAN FRANTZISKO, ZABALA

Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala, hedatzen ari den unibertso bat bezala, egunetik egunera eraldatzen dira. Programa honek ere horretan lagundu nahi du: hiritarrenak diren arte-adierazpeneko formei lotuta dago, eta Bilboko auzo horiek garatzeko eta berritzatzeko trakzio-elementu moduan kulturaren alde egiten duen Plan Bereziaren barnean dago. Zinemak, performanceek, antzerkiak, erakusketak eta inguru horietako erakusketak gunetarako bisita gidatuek, horma-irudi artistikoei, musikari eta beste proposamen berritzaile batzuek eratzen dute programazioa.

KULTUR GABONAK

ABENDUAN

Eguberrietan, kultura hiriaren bazter guztietaraino hedatzen da. Eguberrietako eskaintzak 150 ekitaldi eta ikuskizun inguru hartzen ditu: arte eszenikoak, abesbatzako kontzertuak, erakusketak, folklorea eta musika zuzenean. Gainera, barruti desberdinetan, gaikako zikloak izaten dira, hala nola Nagusientzako Antzerki eta Abesbatza Hamabostaldia Otxarkoagan. Eta ikuskizunen konstelazio honetan, gainera, Gabonetako abesbatza kontzertuak ere izango dira. Kontzertuen ziklo honetan, Bilboko hogeita hamar abesbatza beren errepertorioa eskaintzen ariko dira Hiriko barruti desberdinetako parrokiak elizetan.



DIREKTORIOA

BILBOKO UDALA

KULTURA SAILA

Venezuela plaza 2, 6. pisua. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 420 48 70
www.bilbaokultura.eus
cultura@bilbao.eus

EUSKERA ETA HEZIKETA SAILA

Venezuela plaza 2, 7. pisua. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 420 44 16
www.bilbao.eus
euskera@bilbao.eus

BERDINTASUN, LANKIDETZA, BIZIKIDETZA ETA JAIENTAKO SAILA

Venezuela plaza 2, 5. pisua. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 420 31 63
www.bilbao.eus
atf@bilbao.eus

GAZTERIA ETA KIROL SAILA

Venezuela plaza 2, 4. pisua. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 420 43 94/ 95
bilbaogazte.bilbao.eus
gazteria@bilbao.eus

BILBOKO UDAL ARTXIBOA

Ernesto Erkoreka plaza 1. 48007 Bilbo
Tfno.: 94 420 48 49
www.bilbao.eus
archivo@bilbao.eus

ZINEBI

Colón de Larreategi 13, 3. pisua. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 424 86 98
www.zinebi.eus
info@zinebi.eus

BILBAO ESZENA

Juan de Gardezabal 5. 48004 Bilbo
Tfno.: 94 433 49 95
www.badbilbao.eus
bilbaoeszena@bilbao.eus

BILBOROCK

Muelle La Merced 1, 48003 Bilbo
Tfno.: 94 415 13 06
bilbaogazte.bilbao.eus
bilborock@bilbao.eus

UDALTEGIETAKO LIBURUTEGIAK

BIDEBARRIETAKO LIBURUTEGI NAGUSIA

Bidebarrieta 4. 48005 Bilbo
Tfno.: 94 415 09 15 / 94 415 69 30
blogbibliotekak.bilbao.eus
bidebarrieta@bilbao.eus

UDALTEGIETAKO LIBURUTEGIAK

DEUSTUKO LIBURUTEGIA

Agirre Lehendakaria 42. 48014 Bilbo
Tfno.: 94 447 46 04
bibliotecadeusto@bilbao.eus

ZURBARANBARRI LIBURUTEGIA

Iturriondo plaza 2, beheko solairua. 48007 Bilbo
Tfno.: 94 446 60 01
bibliotecazurb@bilbao.eus

CASTAÑOSEKO LIBURUTEGIA

Castaños, 11. 48007 Bilbo
Tfno.: 94 420 34 04
bibliotecacastanos@bilbao.eus

OTXARKOAGAKO LIBURUTEGIA

Pau Casals etorbidea 19. 48004 Bilbo
Tfno.: 94 412 87 49
bibliotecaotxarkoaga@bilbao.eus

BEGOÑAKO LIBURUTEGIA

Circo Amateur C.D. 2. 48004 Bilbo
Tfno.: 94 473 47 54
bibliotecabegona@bilbao.eus

SAN FRANTZISKOKO LIBURUTEGIA

Mariaren Bihotza plaza z/g. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 415 06 81
bibliotecasanfrancisco@bilbao.eus

ZABALAKO LIBURUTEGIA

Zabala 41. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 415 03 17
bibliotecazabala@bilbao.eus

BUIAKO LIBURUTEGIA

Buia Auzoa 140. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 421 16 15

ERREKALDEKO LIBURUTEGIA

Altube etorbidea 6. 48002 Bilbo
Tfno.: 94 422 38 97
bibliotecarekalde@bilbao.eus

BESTE LIBURUTEGIAK

SAN INAZIOKO LIBURUTEGIA

Agirre Lehendakaria 170. 48015 Bilbo
Tfno.: 94 475 21 04
bibliotecasignacio@bilbao.eus

IBAIALDEKO LIBURUTEGIA

Ibaialde 3. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 679 25 18
bibliotecaibaialde@bilbao.eus

SAN ADRIANGO LIBURUTEGIA

San Adriango etorbidea 34. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 444 78 32
bibliotecasanadrian@bilbao.eus

IRALAKO LIBURUTEGIA

Estrada Guiña 2. 48012 Bilbo
Tfno.: 94 443 66 01
bibliotecairala@bilbao.eus

ZORROTZAKO LIBURUTEGIA

Fray Juan 35. 48013 Bilbo
Tfno.: 94 482 03 70
bibliotecazorroza@bilbao.eus

BILBAOMUSIKA LIBURUTEGIA

Sorkunde 8. 48006 Bilbo
Tfno.: 94 416 47 85
bibliotecabm@bilbao.eus

BESTE KULTUR ERAKUNDEAK

ARRIAGA ANTZOKIA

Arriaga plaza 1. 48005 Bilbo
Tfno.: 94 416 35 33

BILBAOARTE FUNDAZIOA

Urazurrutia 32. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 415 50 97
www.bilbaoarte.org
info@bilbaoarte.org

AZKUNA ZENTROA

Arrikibar plaza 4. 48010 Bilbo
Tfno.: 94 401 40 14
www.azkunazentroa.eus

BILBAO 700 III MILLENIUM FUNDAZIOA

Zabalgune plaza 11, 1. pisua, 48009 Bilbo
Tfno.: 94 679 04 88
www.bilbao700.eus
bilbao700@bilbao.eus

BILBAO MUSIKA

Sorkunde 8. 48006 Bilbo
Tfno.: 94 416 47 85
www.bilbaomusika.eus
info@bilbaomusika.eus

BILBAO EKINTZA

Nafarroa 5. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 420 53 00
www.bilbao.eus/bilbaоекintza

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOA (BOS)

Abandoibarra pasalekua 4. 48011 Bilbo
Tfno.: 94 403 52 05
www.bilbaorkestra.eus
bos@bilbaorkestra.eus

BILBOKO ARTE EDERREN MUSEOA

Museo plaza 2. 48009 Bilbo
Tfno.: 94 439 60 60
www.museobilbao.com

BILBAO GUGGENHEIM MUSEOA

Abandoibarra pasalekua 2. 48001 Bilbo
Tfno.: 94 435 90 00
www.guggenheim-bilbao.eus
informacion@guggenheim-bilbao.eus

EUSKAL MUSEOA BILBAO

Miguel Unamuno plaza 4. 48006, Bilbo
Tfno.: 94 415 54 23
www.euskal-museoa.eus
administrazioa@euskal-museoa.eus

ARTELAN BERREGINEN MUSEOA

San Frantzisko 14. 48003 Bilbo
Tfno.: 94 679 02 55
www.bilbokoberreginenmuseoa.eus
info@bilbokoberreginenmuseoa.eus

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

Ramon de la Sota kaia 1. 48013 Bilbo
Tfno.: 94 608 55 00
www.museumaritimobilbao.eus
info@museumaritimobilbao.org

ELEIZ MUSEOA

Encarnación plaza 9B. 48006 Bilbo
Tfno.: 94 432 01 25
www.eleizmuseoa.com
museo@eleizmuseoa.com

ARKEOLOGI MUSEOA

Calzada de Mallona 2. 48006 Bilbo
Tfno.: 94 404 09 90
arkeologimuseoa@bizkaia.eu

ASTE SANTUKO PASOEN MUSEOA

Iturribide 3. 48006 Bilbo
Tfno.: 94 415 04 33
www.museodepasosbilbao.com

CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIA


Bertendona 3. 48008 Bilbo
Tfno.: 94 443 86 10
www.teatrocampos.com

HARROBIA

Langaran 3. 48004 Bilbo
Tfno.: 94 459 77 47
www.harrobia.org
info@harrobia.org

BLAS DE OTERO FUNDAZIOA

Barrainkua 5. 48009 Bilbo
www.fundacionblasdeotero.org



Urteko programazio honen etorkizuneko edizioak posta elektronikoaren bidez jasotzeko aukera eskaintzen dizu Bilboko Udalak, eta bai Bilbao Kultura hileko agenda ere, Bilboko kultura eta aisia jardueren buruzko informazio eguneratua eta zabala eduki ahal izateko.

Agenda formatu digitalean baino ez baduzu jaso nahi, bidaliezaguzu mezu elektronikoa helbide honetara, zure datu pertsonalekin:

agendakulturala@bilbao.eus

BILBOKO UDALAK ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIE, BEREN DIRU LAGUNTZA, BABESLETZA ETA MOTA GUZTIETAKO LAGUNTZEN BIDEZ, PROGRAMAZIO HAU AHALBIDETZEN DUTEN ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE PUBLIKO GUZTIEI ETA ERAKUNDE PRIBATU ETA HERRITARRENEI.

Datuak sartu ahal izango dira, informazio helburuekin eta irabazi asmonik gabe, Bilboko Udalen Kultura Sailak kudeatutako fitxategi batean (Venezuela plaza, 2. 48001, Bilbo). Hartara, arlo horren aurrean gauzatu ahal izango dira aurka egiteko, eskuratzeko, zuzentzeko eta baliogabetzeko eskubideak, eta, era berean, arlo horri adierazi ahal izango zaio, aipatutako helburu berberekin eta legeak baimendutako kasuetan, beste udal erakunde eta/edo enpresa publiko batzuei datuak laga ahal izatearekin ados ez dagoela.



WWW.BILBAOKULTURA.EUS
BILBAO KULTURA